



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

Espediente-zk.: 06-600-10

Kontratazioaren xedea: Eusko Legebiltzarraren IKT funtzioa optimizatzeko azterketa bat egitea.

Prozedura: zerbitzuak prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea.

## 1.- KONTRATUAREN XEDEA:

1.1.- Jardueren araberako produktuen sailkapen nazionalaren (CPA-2002) nomenklaturari dagokion kodea adieraztea: 72.22.15

1.2.- CPVko erreferentzia-zenbakia –Batzordeak 2008ko abenduaren 16an emandako 2151/2003 (EE) Araudia–:

Nomenklatura nagusia    Nomenklatura osagarria

### Xede nagusia

Eusko Legebiltzarraren IKT funtzioa optimizatzeko azterketa bat egitea.

1.3.- Kontratu-izaera izanik, espedienteari atxiki zaizkion dokumentuak adieraztea:

Administrazio-klausula berezien agiria

Klausula teknikoen agiria

Kontratua (esleipena egin eta gero)

1.4.- Bete beharreko administrazio-beharrak: Xede nagusian azaldutakoak.

1.5.- Loterik badagoen (bai/ez): Ez.

a) Loteetara lizitatzeko arau berezirik (bai/ez):

a) Loteak esleitzeko arau berezirik (bai/ez):

1.6.- Aldaerak sartzeko aukerarik (bai/ez): Ez.

Aldaerak guztira (..... gehienez) ondorengo elementuen edo sistemen gainean eta adierazitako baldintzetan (gutxieneko eskakizunak eta aurkezteko modalitateak):

2. KONTRATAZIO ORGANOA: Eusko Legebiltzarreko Mahaia.





- 2.1.- Kontratazio-mahaiaren laguntza izango duen (bai/ez): Bai.
- 2.2.- Aldez aurreko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren kasuan, adierazi eskaintzak jendaurrean irekiko diren (bai/ez): Aldez aurreko publizitatea duen prozedura negoziatua da.
- 3.- ESPEDIENTE ZENBAKIA: 06-600-10
- 4.- ALDEZ AURREKO PUBLIZITATEA DUEN PROZEDURA NEGOZIATUA (bai/ez): Bai.
- 4.1.- Prozedura negoziatua baimentzen duen balizkoa: Sektorre Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 158.e) artikulua.
- 5.- ZENBATEKOA DELA ETA PUBLIZITATERIK EZ DUTEN NEGOZIATUETAN AZALDU ONDOKOEI ERRESERBATUTAKO KONTRATUA DEN:
- Enplegu-zentro bereziak (bai/ez): Ez.
  - Enplegu babestuko programen barruan gauzatzeko (bai/ez): Ez.
  - Beste batzuk (adierazi erreserba):
- 6.- ARAUTZE HARMONIZATUARI LOTUTAKO KONTRATUA DEN (bai/ez): Ez.
- 6.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia arautze harmonizatuari lotzearen ondorioetarako.
- 6.2.- Hura zehazteko erabilitako metodo edo araua.
- 7.- PRESAZKO BIDERATZEA (bai/ez): Ez.
- 8.- BAIMENTZEN DA LIZITAZIO ELEKTRONIKO BIDEZKO PROZEDURA (bai/ez): Ez.
- 9.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA. NON AZTER DAITEZKEEN OINARRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO INTERESDUNA
- 9.1.- Kontratatzailearen profila erakundearen web-orritik eskuratuko da, eta datuak eta informazioak jasotzen ditu kontratazio-organoaren kontratu-jarduerari buruz.
- 9.2.- Non azter daitezkeen proiektua eta gainerako dokumentazio interesduna.  
Lekua:  
[www.parlamento.euskadi.net](http://www.parlamento.euskadi.net) web-orria (Dataweb – Zerbitzuak – Lizitazioak)





Harremanetarako: Letradu nagusia (Montserrat Auzmendi)  
Idazkaritza Nagusiko burua (Julio Maroño)  
Tel.: 945 004043  
Faxa: 945 138017  
E\_mail: julio.marono@parlam.euskadi.net

9.3.- Informazioa enpleguaren babesari, ingurumenari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz.

Enpresa hautagaiak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan informazioa jaso ahal izango du enpleguaren babesaren, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruz –kontratuaren gauzatzeari aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan jasotako klausula gehigarriak ere.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzan, IHOBE sozietate publikoaren bitartez, informazioa jaso ahal izango du ingurumenaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruz –kontratuaren gauzatzeari aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan jasotako klausula gehigarriak ere.

Era berean, EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoan informazioa jaso ahal izango du emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruz –kontratuaren gauzatzeari aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan jasotako klausula gehigarriak ere.

## 10.- LIZITAZIORAKO AURREKONTUA:

10.1.- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 71.6.b) artikulua aitapatutako kontratuetan zenbat gastatu daitekeen gehienez: 80.000 euro.

11.- AURREKONTUKO DIRU IZENDAPENA (hala badagokio, urteka banatuta):  
2010eko Ekitaldiko Gastuen Aurrekontuetako 25606/00 kontu-saila

12.- GAUZATZE EPEA: 4 hilabete gehienez.

12.1.- Kontratu hau beste mota bateko kontratu baten osagarria den, eta horrek baldintzatu egiten duen kontratu honen gauzatzea (bai/ez): Ez.

13.- KONTRATUA LUZATZEA (bai/ez): Bai.

13.1.- Zenbat aldiz luza daitekeen: Bi.





13.2.- Luzapen bakoitzaren iraupena: Hilabete.

14.- PREZIOA ZEHAZTEKO SISTEMA (SPKLaren 278. artikulua): Tarifen araberako ordainsariak aplikatzearen emaitza (aholkulari bakoitzaren ordainsariak, haren kategoria eta proiektuan emandako lanorduak kontuan izanda).

15.- ORDAINKETEN ALDIZKAKOTASUNA: Behin betiko hartu izanaren akta egindakoa, esleipendunak aurkeztutako eskaintzari dagokion zenbatekoaren arabera fakturatuko du eta zenbatekoa behingoan ordainduko zaio.

16.- KONTURAKO ORDAINKETAK: Ez dira ezarri.

16.1.- Kontura ordain daitezkeen eragiketak zein diren:

16.2.- Prestatze-eragiketak balioesteko irizpideak eta modua:

16.3.- Konturako ordainketak amortizatzeko plana:

16.4.- Jarri beharreko bermea:

17.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA (bai/ez): Ez.

17.1.- Erabil daitezkeen indize edo formula ofiziala:

17.2.- Aplikatzeko metodoa edo sistema:

18.- PREZIOA ALDATZEKO KLAUSULA EPE EDO ERRENDIMENDU HELBURU JAKIN BATZUK BETETZEAREN ARABERA (bai/ez): Ez.

19.- BERMEAK:

19.1.- Behin-behineko bermea: Ez da ezarri.

19.2.- Behin betiko bermea: Eskaintzaren zenbateko osoaren % 5, BEZa kanpo.

19.3.- Berme osagarria: Ez da ezarri.

20.- PUBLIZITATE GASTUEN ZENBATEKOA (hala badagokio): Ez da egokia.

21.- AZPIKONTRATATZEKO GEHIENENKO EHUNEKOA: Ezin daiteke azpikontratu.

22.- LAN PROGRAMA (bai/ez): Bai.





**23.- KONTRATUAREN XEDE DIREN ZERBITZUAK EGITEKO EDO ENTREGATZEKO LEKUA:** Eusko Legebiltzarra, Becerro de Bengoa kalea, z/g, 01005, Vitoria-Gasteiz.

**24.- LANAK BALIOESTEKO ETA HARTZEKO PROZEDURA:**

**24.1.- Segidako traktuko kontratuetan, balioespenen aldizkakotasuna eta egindako lanen ziurtapenak (HAKLAO, 199. artikulua):** Gauzatutako lana hileroko balioetsiko da, Legebiltzarreko Administrazioako zerbitzu eskudunek egindako txostenaren bidez.

**24.2.- Zatiko entregaren aurretik ordaindu beharreko zatiko balioespenak, HAKLAOren 200. artikuluan jasotakoak:** Ez da egokia.

**24.3.- Hartzea (HAKLAO, 203. eta 204. artikulua):** Enpresa esleipendunak, proiektuaren fase bakoitzaren ondoren, fase bakoitzerako hitzartutakoa bete dela ziurtatzeko txostena egingo du. Txoten horrek, Legebiltzarreko Administrazioak egindako hileroko txosten positiboekin batera, bideragarri egingo du gauzatze-faseko fakturatutako kopuruaren ordainketa.

**25.- ZIGORRAK, SPKLaren 196.4 ARTIKULUAN AIPATZEN DIRENEZ BESTELAKOAK:** Ez dira ezarri.

**26.- PREZIOAZ BESTELAKO KONTRATU KLAUSULA BATZUK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ZIGORRAK:** Proiektua amaitzeko epea, esleipendunak bere eskaintzan zehaztutakoa, bete ezean (Eusko Legebiltzarrari egozteko moduko arrazoiengatik izan ezik), esleipenaren zenbateko osoaren % 1eko zigorra ezarriko da atzeratutako egun bakoitzeko.

**27.- KONTRATUAREN ZATIREN BAT EZ BETETZEAK ZEIN KASUTAN DAKARREN KONTRATUA OSORIK DESEGITEA:** Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak jasotakoak (206. eta 284. artikulua).

**28.- KONTRATU HAU LOTUTA DAGO AGIRIAREN 16.4. ETA 18.10. KLAUSULETAN JASOTAKO ISILPEKOTASUN ARAUEI ETA DATU PERTSONALAK TRATATZEAN HARTU BEHARREKO NEURRIEI. ZEHAZTU, HALA BADAGOKIO, AGIRIAREN 18.10.7.b) KLAUSULAN JASOTAKO ARGIBIDEAK:** Ez da aurreikusitako berariazko neurri gehigarririk.

**29.- HARRERA EPEA ETA BERME EPEA:**

**29.1.- Harrera-epea:** Harrera gauzatze-epearen amaieran izango da.





**29.2.- Berme-epa:** Urtebete, proiektua osorik eta behin betiko hartzearen akta onesten denetik hasita.

### **30.- KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK:**

Kontratu hau hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko araubideari lotuta dago, hau da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarri eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Oinarrizko Legeak eta bera garatzen duen arautegiak araututa dagoenari.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintza bat da; beraz, baldintza hori ez betetzeak kontratu honen edozein klausula betetzen ez denerako oro har aurreikusitako ondorioak ekarriko lituzke.

Kontratu gauzatzean, agiriaren 18.8 klausulak xedatutakoa bete beharra dago.

### **31.- KONTRATUA GAUZATZEKO INGURUMEN EDO GIZARTE MOTAKO BALDINTZA BEREZIAK**

**31.1.- Ingurumen-izaerakoak:** Ez dira egokiak.

**31.2.- Gizarte-izaerakoak:**

- a) Kontratatutako lana egitean eta aurkeztean, genero-ikuspegia gaineratuko du, eta hizkuntzaren eta irudiaren erabileran diskriminazio-elementu sexistak saihestuko ditu.
- b) Kontratatutako zerbitzuak ikastaroak ematea barne hartzen duenean, ikastaro horien edukian gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sartuko du.

### **32.- PARTE HARTZEKO ESKAERAK ETA ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA MODUA:**

**Lekua:** Eusko Legebiltzarra, Erregistro Nagusia, Becerro Bengoa kalea, z/g, 01005, Vitoria-Gasteiz.

**32.1.- Hala badagokio, eskaintza bidali dela postaz iragartzeko bideak:**

**Faxa:** 945 138017. Postak zigilatutako dokumentuaren kopia bidaliko da, eta han bidalketaren eguna eta ordua agertu beharko dira.

**32.2.- Egokia bada, azaldu alde aurreko publizitaterik gabeko negoziatuan bi gutun-azalak (A eta B) batera aurkeztu beharra dagoela (bai/ez):**





### 33.- PROZEDURAN PARTE HARTZEKO KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA ETA TEKNIKO DELA ETA ESKATUTAKO SAILKAPENA EDO BALDINTZAK:

Kaudimena egiaztatzeko bide gisa, lana gauzatzeko eskuragarri izango diren makinak eta ekipo teknikoak adieraziko dituen aitordena eskatzen bada, aitordpenarekin batera, bitarteko horiek aplikatzekoak zaizkien segurtasun-araudira egokitzen direnaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Araudi horretan sartzen dira, besteak beste, 1435/1992 Errege Dekretua eta Makinei buruzko Europako Arteztarauaren ondoriozko gainerakoak, eta Laneko Ekipoen Erabilerari buruzko 1215/1997 Errege Dekretua.

#### 33.1.ZERBITZUEN KONTRATUAK:

##### 33.1.1. Sailkapena eskatuz gero:

a) Eskatutako sailkapena (kontratuak, salbuetsi gabeak, aurrekontua 120.000,00 €-koa edo hortik gorakoa dutenean): Ez da egokia.

b) Aipatutako sailkapenik ezean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa Espainiaz kanpoko enpresek, ondoren adierazten diren bideen bitartez, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen teknikoari buruzko honako eskakizun hauek egiaztatuko dituzte (SPKLaren 64. eta 67. artikuluen arabera):

- Egiaztatzeko bideak:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

Kaudimen teknikoa:

- Eskakizunak:

33.1.2. Aurrekontua 120.000,00 €-tik beherakoa duten kontratuak edo sailkapenetik salbuetsita daudenak: interesdunek kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen tekniko edo profesionalari buruzko eskakizunak egiaztatu beharko dituzte (SPKLaren 64. eta 67. artikuluen arabera).

33.2.- BALIABIDEAK ATXIKITZEA.- Lizitatzailleak sinatu eta aurkeztu egin beharko du baliabide horiek kontratua gauzatzeari atxikitzearen konpromisoa, IV. eranskinean adierazten dena.

### 34.- ALDEZ AURREKO PUBLIZITATEA DUEN PROZEDURA NEGOZIATUARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI KONTRATAZIO ORGANOAK PROZEDURAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENAK EGITEKO ERABILIKO DITUEN IRIZPIDE





## OBJEKTIBOAK; ETA, HALA BADAGOKIO, GEHIENEZ ETA GUTXIENEZ ZENBAT ENPRESA GONBIDATZEA AURREIKUSI DUEN:

- 34.1.- Litzitazioarako erabili beharreko irizpide objektiboak: "Eskaintzak balioesteko irizpideak" dokumentuan irizpide objektibotzat jasotakoak.
- 34.2.- Gutxienez zenbat enpresa gonbida daitezkeen: 3
- 34.3.- Gehienez zenbat enpresa gonbida daitezkeen: 6
- 34.4.- Lizitatu nahi duenak «B» gutun-azalean aurkeztu behar duen dokumentazioa, parte hartzeko eskatzen duten enpresak aukeratzeko oinarritzko irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko: Administrazio-klausulen agiriaren 7.7 klausulan adierazitakoa.

## 35.- ESLEIPENA:

- 35.1.- Administrazioak kontratua esleitu ahal izango du bere baldintzak eskaintza aurkeztu duen enpresa batekin edo batzuekin negoziatu ondoren, agiriaren 8.4 klausulak xedatutakoaren arabera.
- 35.2.- Beharrezkotzat jotzen badira, kontratua esleitzeko oinarritzat erabili behar diren irizpide objektiboak, garrantzikoenetik hasita eta emango zaien puntuazioa adierazita zerrenda modura, bai eta haiek balioesteko ezarritako formulak ere egokitzen direnean irizpideen arabera: "Eskaintzak balioesteko irizpideak" izeneko erantsita doan dokumentuan zehaztutako irizpideak.
- 35.3.- Hala badagokio, eskaintzak balioesteko irizpideak zein fasetan erabiliko diren, erabiliko diren ordenaren arabera zenbakituta, eta gutxienez zenbat puntu lortu behar diren (prezioa edo eskaintza ekonomikoa azken balioespen-fasean balioetsiko da). Irizpideak aldi berean balioetsiko dira.
- 35.4.- Esleipenean, agiriaren 8.3 klausulan jasotako lehentasunak aplikatuko dira.

## 36.- HALA BADAGOKIO, ESKAINTZA AURKEZTEN DUENAK AURKEZTU BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA (hala badagokio, azaleko orri honen 36.2 puntuan finkatutako esleitze-irizpideak balioesteko):

- 36.1.- Adierazitako irizpideen artean ageri baldin bada «esleipena egiteko bestelako irizpideetan xedatutako eta sartu gabeko betebeharrei gehitutako zerbitzuekin lotutako beste hobekuntza batzuk» kontzeptua, agiriaren 7.6.3 klausulan eta III. eranskinean jasotakoari jarraituko zaio, kontuan izanik –ezarrita baldin badaude– ondoko mugak eta baldintzak:





Kopuru osoa (... gehienez) ondorengo elementuen edo sistemen gainean eta adierazitako baldintzetan: Ez da adierazten hobekuntzen gehieneko kopururik.

37.- KONTRATUAREN NEGOZIATU EZINEZKO ALDERDI EKONOMIKOAK ETA TEKNIKOAK, AGIRIAREN 8.2.1.b) KLAUSULAN ADIERAZITAKO EZ GAIN. Klausula horretan zehaztutakoak.

38.- KONTRATUAREN BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK, AGIRIAN ADIERAZITAKO EZ GAINERA:

38.1.- Esleipendunari enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen zaio harreman jakin batzuetan, eta kontratu horien baldintzei buruzko informazioa ematen da (bai/ez): Ez.





## ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

### AURKIBIDEA

#### I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

- 1.- Kontratuaren xedea
- 2.- Arauak
- 3.- Kontratuaren aurrekontua, kreditua izatea eta kontratuaren prezioa
- 4.- Prezioak berraztertzea
- 5.- Kontratuaren iraupena
- 6.- Esleitzeko prozedura eta modua

#### II.- BETE BEHARREKO IZAPIDEAK, PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

- 7.1.- Eskakerak eta eskaintzak aurkezteari buruzko arau orokorrak
- 7.2.- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuan eskaintza aurkezteko gonbidapena
- 7.3.- Iragarpen publikoa, hautagaiak eskatzea eta hautatzea, eta publizitatea duen prozedura negoziatuan eskaintza aurkezteko gonbidapena
- 7.4.- Aldez aurreko publizitaterik gabeko negoziatuan eskaintzak aurkezteko epea eta modua
- 7.5.- Aldez aurreko publizitatea duen negoziatuan eskaintzak aurkezteko epea eta modua
- 7.6.- A gutun-azala: Proposamen ekonomikoa edo eskaintza eta dokumentazio teknikoa
- 7.7.- B gutun-azala: Dokumentazio administratiboa, bai eta gaitasunari eta kaudimenari buruzkoa ere
- 7.8.- Aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko azalpenak
- 7.9.- Dokumentazioa egiaztatzea

#### III.- JARDUNAK AZTERTZEA ETA NEGOZIAZIOA

- 8.1.- Jardunak aztertzea eta gutun-azalak irekitzea
- 8.2.- Negoziazioa

#### IV.- KONTRATUAREN ENPRESA ESLEIPENDUNA HAUTATZEA

- 8.3.- Kontratazio Mahaiaren behin-behineko esleipen-proposamena
- 8.4.- Lehentasunak esleitzean
- 8.5.- Zerbitzuaren txostena hautapena justifikatuta

#### V.- KONTRATUA ESLEITZEA

- 9.- Kontratua behin-behineko esleitzea
- 10.- Kontratua behin betiko esleitzea





11.- Esleipenak jakinaraztea eta argitaratzea

#### VI.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

12.- Kontratua formalizatu aurreko betebeharrak

13.- Kontratua formalizatzea

#### VII.- KONTRATUA GAUZATZEA

14.- Gauzatzearen zuzendaritza eta ikuskaritza

15.- Lanak hastea

16.- Kontratutako lanari buruzko arau orokorrak:

16.1.- Lanen programa

16.2.- Kontratuko dokumentu eta argibide, baliabide material eta giza baliabideei buruz ezarritakoa betetzea

16.3.- Lanen jabetza

16.4.- Isilpekotasuna

16.5.- Industria-jabetza eta jabetza intelektuala

16.6.- Itundutakoa ez ezagutzea

16.7.- Epeak betetzea

17.- Enpresa kontratistari egin beharreko ordainketak

18.- Enpresa kontratistaren beste betebeharrak:

18.1.- Lanaren arlokoak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunekoak

18.2.- Aginduen liburua

18.3.- Lanen eta kalteen ondoriozko erantzukizuna

18.4.- Gauzatzeko beharrezko gastuak

18.5.- Gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak lortzea

18.6.- Administrazio kontratugilearekiko lankidetzak

18.7.- Epeak ez betetzea

18.8.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak

18.9.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, sozialak edo ingurumenekoak

18.10.- Datu pertsonalen tratamendua

19.- Lan akastunak edo gaizki egindakoak

20.- Kontratua lagatzea eta azpikontratatzea

21.- Kontratua aldatzea eta etetea

#### VIII.- KONTRATUA AMAITZEA

22.- Lanak amaitzea eta lan horiek jasotzea

23.- Bermea itzultzea

24.- Gauzatzearen atzerapena

25.- Kontratua desegitea

#### IX.- ERREKURTSOAK: ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA





- 26.- Errekurtoak. Kontratazioaren arloko errekurto berezia
- 27.- Eskumena eta jurisdikzio eskuduna





## I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

### 1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.1.- Agiri honen azaleko orriaren 1. puntuan deskribatzen den zerbitzua da kontratu honen xedea.

1.2.- Administrazio-klausula berezien agiri honetan eta betebeharrak teknikoaren agirian datozen baldintzak bete behar dira, agiriok ere kontratua osatzen baitute.

1.3.- Agiri honen azaleko orriaren 1.6 puntuak uzten badu, enpresa lizitatuak aldaerak eskaini ahal izango dituzte, betiere 1.6 puntu horretan aipatzen diren kontratuaren baldintza, modalitate eta gaien artean sartzen baldin badira; gehienez aurkeztu ahal izango den kopurua puntu horretan bertan zehazten dena izango da.

### 2.- ARAUAK

2.1.- Kontratuak ondorengo arauak bete beharko ditu:

- a) Agiri honetan jasotako klausulak, bere azaleko orriko zehaztapenen arabera.
- b) Sektorre Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea.
- c) HAKLAO Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, SPKL Sektorre Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak xedatutakoaren aurka ez dagoen neurrian.
- d) 1972ko martxoaren 8ko Agindua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean eta Araudi Orokorrean xedaturikoaren aurka ez dagoenerako. Agindu horretan onartu zen, hain zuzen ere, azterketa eta zerbitzu teknikoak kontratatzekeo administrazio-klausula orokorren agiria.
- e) Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- f) Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- g) Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada.

2.2.- Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo Administrazioak emandako jarraibide, klausula-agiri edo era guztietako arauak ezagutu gabe ere,





hitzartutakoa betetzeko erabili beharrekoak gerta badaitezke, enpresak horiek guztiak betetzeko betebeharra izaten jarraituko du.

### **3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA, KREDITUA IZATEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA**

3.1.- Kontratu honetan hitzartutako zerbitzuak betetzearren Administrazioak jarritako aurrekontuaren zenbatekoa zein den agiriaren azaleko orriko 10. puntuan dago zehazturik, eta, urtekako ordainkizunak, berriz, orri horretako bertako 11. puntuan daude zehazturik. Azaleko orri horretako 14. puntuan jasota dagoen sistema erabili da hura ezartzeko.

3.2.- Bada nahikoa kreditu Administrazioak kontratuko betebeharrak bete ditzan. Azaleko orriko 10. puntuan dago zehazturik horrek aurrekontuan duen diru-izendapena.

3.3.- Kontratuaren prezioa kontratua esleitzearen ondorioz ateratzen dena izango da, eta ezingo da Administrazioak jarritako aurrekontua baino handiagoa izan.

### **4.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

4.1.- Enpresa kontratistak hartuko ditu bere gain kontratua betetzearen arriskuak.

4.2.- Dena den, prezioak berraztertzeari dagokionez, agiri honen azaleko orriko 17. puntuan esaten dena bete beharko da, bai eta azaleko orriko 37. puntuan jasotakoaren arabera berraztertze hori negoziazioaren xede izateko edo ez izateko aukera eta, hala badagokio, bi aldeen arteko hitzarmenak ere, indarrean dagoen legeria kontuan izanda.

4.3.- Kontratuak jasotzen ez badu prezioak berraztertzea, egoera hori ez da aldatuko gauzatze-eparen luzapenagatik, betiere luzapen horren zergatia ez bada Administrazioari egozteko modukoa edo ezinbesteko kasuak gertatu izana, ezinbesteko kasutzat SPKLaren 214. artikuluko ezarritakoak hartuta.

4.4.- Azaleko orriak prezioak berraztertzea jasotzen badu, prezioen berraztertze hori egiteko, kontratuari dagokion kostuaren 100eko 20k burututa egon behar du eta esleitu zenetik urtebete igarota; beraz, ez 100eko 20, ez eta hasi zenetik urtebete igaro artekoa ere ezin izango dira berraztertu.





Prezioak aldizka berraztertuko dira, aldi bakoitzean gauzatutako zerbitzuen balioetsitako zerrenda egitean, eta egiaztagiri bakarrean jasoko da gauzatutako obra eta horren berraztertzea.

## 5.- KONTRATUAREN IRAUPENA

5.1.- Klausula-agiriaren azaleko orriaren 12. puntuan dago ezarrita kontratua gauzatzeko gehieneko denbora. Ezingo da lau urte baino luzeagoa izan. Hala ere, luzapen bat edo gehiago ere izan daiteke, azaleko orriaren 13. puntuan berariaz aurreikusten bada, baina kontratuak ezingo du guztira sei urte baino gehiago iraun, eta luzapenak ezin izango dira hasieran zehaztutakoa baino denbora gehiagorako ebatzi.

5.2.- Xedatutako hori horrela izanagatik ere, azaleko orriaren 12.1 puntuan aipatzen diren zerbitzu-kontratuak denbora gehiago egon daitezke indarrean, baldin eta obra eta hornigaietarako beste kontratu batzuen osagarriak badira. Denbora hori, baina, ez da inoiz kontratu nagusiak iraungo duena baina gehiago luzatuko. Nolanahi ere, badago salbuespen bat: kontratu osagarri horiek kontratu nagusiaren likidazioa egitekoak badira, kontratu nagusiak baino gehiago iraun dezakete; kasutan, amaitzeko behar beste denbora gehiago iraungo dute kontratu horiek. Atal honetan aipatutako kontratu osagarria ez da indarrean jarriko harik eta obra-kontratua gauzatzen hasi arte. Horrela egingo da beti, xedeak eta edukiak bestela jokatzeko agindu ezean.

5.3.- Aldi baterako lan-enpresekin inkestak egiteko, datuak biltzeko edo antzeko beste lan batzuk egiteko hitzartutako zerbitzu-kontratuek ezingo dute, inoiz, sei hilabete baino gehiago iraun, eta amaitzen direnean ez dute luzapen-biderik izango.

5.4.- Administrazioa legearen aurrean eta epaitegietan defendatzeko kontratuek, aldiz, beharrezko denbora guztia iraungo dute.

5.5.- Hala badagokio, aholkularitza eta laguntzako kontratuak, eta zerbitzuetakoak luzatzeko prozedura:

5.5.1.- Klausulen azaleko orriaren 13. puntuan hartarako aukera ematen badu eta alde guztiak ados badaude, beste tarte baterako luza daiteke kontratua, zerbitzuei eustearren. Kontratazio-organoak berariaz ebatzi beharko du. Luzapen hori edo horiek ezingo dira, ez banaka harturik ez batera, hasieran zehaztutakoa baino denbora gehiagorako erabaki.

5.5.2.- Esleipendunak, halakoetan, luzapenerako baldintza ekonomikoan proposamena kontratua amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago bidali beharko





dio Administrazioari. Hala egiten ez badu, baldintza horiek ordura arteko berberak izango direla ulertuko da.

5.5.3.- Berriaz ezer ebatzi baino lehen, kontraesaneko espedientea egin beharko du Administrazioak, eta espediente horretan jaso, nahitaez, Kontratazio-mahaiaren aholkulari juridikoaren txostena, mahai horrek jarduten badu, edo, bestela, haren funtzioetan diharduenaren txostena, Eusko Legebiltzarreko Kontu-hartzaitzarena, gastuaren ikuskapena eta, hala badagokio, ondorengo ekitaldi ekonomikoetarako konpromisoarena.

## **6.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA**

6.1.- Kontratu hau prozedura negoziatuaren bidez esleituko da. Prozedura hori SPKLaren 122. artikuluan jasota, eta 153., 154., 158., 160., 161. eta 162. artikuluetan araututa dago.

6.2.- Kontratazio-organoak prozedura negoziatua aplikatzea erabaki ahal izango du SPKLaren 154. eta 158. artikuluetan jasotako egoeretakoren bat suertatzen denean.

6.3.- Kontratazio-organoak aldez aurreko publizitatea duen prozedura negoziatua aplikatzea erabakiko du SPKLaren 161. artikuluan 1. eta 2. paragrafoetan jasotako kasuetan, eta horren balio zenbatetsia 60.000 €-tik gorakoa denean ere bai.

6.4.- Kontratazio-organoak Kontratazio-mahaiaren laguntza izango du, azaleko orriaren 2.1 puntuan horrela ezartzen baldin bada.

## **II.- BETE BEHARREKO IZAPIDEAK, PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA**

### **7.1.- ESKAERAK ETA ESKAINTZAK AURKEZTEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

Kontratu honen zehaztasun teknikoak idazten parte hartu duten enpresek, hala badagokio, ezin izango dute prozedura honetan parte hartu, parte-hartze horrek lehia libreari oztopoak jartzen baldin badizkio edo gainerako enpresekin alderatuta enpresa haien aldeko pribilegioak sortzen baditu.





Obra eta instalazioen gauzatzea zaintzeko, ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko aholkularitzako eta laguntzako zerbitzu-kontratuak ezin zaizkie obra horiek egiteko kontratuak lortu dituzten enpresa berebereri esleitu, eta ezta haiei loturik dauden enpresei ere (HAKLaren 134. artikuluan dago zehazturik zein diren).

Azaleko orriaren 5. puntuan kontratua enplegu-zentro berezietarako edo enplegu babestuko programen baitan gauzatzeko erreserbatzen bada, langile gehienak minusbaliatuak badira eta, euren gaitzaren izaera edo larritasunagatik, lanbide-jarduera egoera normalean bete ezin badute, edo beste erreserba-kasu batzuetan, erreserba hori betetzeko egoeran egotea egiaztatzen duenak baino ezingo du parte hartu.

Parte hartzeko eskaera eta, hala badagokio, eskaintza aurkezteak esan nahiko du lizitatuzaileak klausula-agiri honetan eta azaleko orrian esaten den guztia baldintzarik gabe onartzen dela, eta orobat kontratuaren gainontzeko dokumentu guzti-guztietan esaten dena ere onartzen dela. Gainera, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla adierazten duela ulertuko da, eta obra kontratatzeko eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Lizitatuzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu parte hartzeko eskaera bat eta, hala badagokio, eskaintza bat baino gehiago (hori horrela izanik ere, azaleko orriak aldaerak baimendu ditzake), ez banaka, ez aldi baterako enpresa-elkarte bateko kide gisa; eta banaka aurkezten duenak ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartean sinatu. Arau horietakoren bat hausten bada, onartu gabe geratuko dira lizitatuzaileek arau horiek urratuta izenpetutako eskabide eta eskaintza guztiak.

Eskaintza postaz bidaliz gero, postetxean bertan egiaztatu beharko da hura bidali deneko eguna, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko zaio eskaintza postaz igorri izana, proposamena posta bidez bidali dela azaleko orriaren 32.1 puntuan aipatutako bideetakoren bat erabiliz. Bi egitekoak (proposamena bidaltzea eta hori bidali izana kontratazio-organoari jakinaraztea) gonbidapenean adierazitako aurkezte-epea bukatzen deneko data eta ordua baino lehen egin beharko dira.

Bi baldintzak bete ezean, dokumentazioa ez da onartuko, baldin eta adierazitako aurkezte-epea bukatzen deneko data eta ordua igarotakoan jasotzen bada. Dena den, aipatutako egun horretatik hamar egun natural iragan badira proposamena jaso gabe, inolaz ere ez da onartuko proposamen hori.

Jakinarazpena kontratazio-organoari posta elektronikoz eginez gero, baliorik izango baldin badu, azaleko orriaren 32.1 puntuan baimenduta egoteaz gain, nahitaezkoa da argi jasota egotea bai bidali izana, bai jaso izana, bai datak, bai jakinarazpenen eduki osoa, eta ondo identifikaturik egotea zein diren bai bidaltzailea, bai





jasotzailea. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu beharko da. Gero, espedienteari erantsi beharko zaio.





## **7.2.- PUBLIZITERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAN ESKAINTZA AURKEZTEKO GONBIDAPENA**

Prozedurak alde zurrerko publiziterik ez badu (ikus azaleko orriaren 4. puntua), kontratazio-organoak gonbidatu beharko ditu kontratuaren xedea betetzeko gaitasuna duten enpresak eskaintza aurkez dezaten. Ahal den guztietan, hiru eskaintza eskatuko dira gutxienez. Eskaintza aurkezteko gonbidapena, hori jasotzea eta horri erantzutea espedientearen jasota geratuko dira berariaz.

Printzipioz, eta ahal bada, eskaintza aurkezteko gonbidapena hiru enpresari egin beharko zaie gutxienez; Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematea eskatu eta hori lortu duten enpresen artean.

## **7.3.- IRAGARPEN PUBLIKOA, HAUTAGAIK ESKATZEA ETA HAUTATZEA, ETA ALDEZ AURREKO PUBLIZITATEA DUEN PROZEDURA NEGOZIATUAN ESKAINTZA AURKEZTEKO GONBIDAPENA**

Agiri honen 4. puntuan prozedura honek alde zurrerko publizitatea duela adierazten bada, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen 126. artikuluan jasotako moduan argitaratuko da lizitazioaren iragarkia.

Alde zurrerko publizitatea duen prozedura negoziatu batean parte hartzea eskatzeko, hautagaiak, iragarkian ezarritako epean eta agiri honen azaleko orriaren 32. puntuan adierazitako bulegoetan, «B» GUTUN AZALA izeneko gutun-azal bat aurkeztu beharko du, bertan adierazita zer kontratutan lehiatu nahi den, lotea edo loteak (hala bada gorkio), enpresaren izena, eskaera sinatzen duenaren izen-deiturak eta zer izaerarekin egiten duen, helbidea, telefono-zenbakia, fax-zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea, hori guztia modu irakurgarrian. Gutun-azalak itxita egin beharko du nahitaez, eta eskaera sinatzen duenak sinatuta. Eskaera aldi baterako enpresa- elkarte gisa egitekotan, enpresa guztiek sinatuko dute gutun-azala.

B gutun-azalean sartu behar den dokumentazioa da agiri honen 7.7 azaleko orrian aipatutakoa eta azaleko orriaren 35.4 puntuan adierazitakoa, eta I. eranskinean dagoen ereduaren arabera egindako parte hartzeko eskaera bat.

Hautagaiak hautatzea. Administrazioak «B» gutun-azalaren edukia aztertuko du aurrez, eta garaiz eta eraz aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu.





Aurkeztutako dokumentazioan, konpontzeko moduko akatsik edo ez-egiterik ikusten bada, parte hartu dutenei ahoz jakinaraziko die, eta horiek konpontzeko gehienez hiru egun balioduneko epea emango zaie.

Dokumentazioa kalifikatu eta, hala badagokio, akatsak edo ez-egiteak zuzendu ondoren, azaleko orriaren 33. puntuan finkatutako kaudimen-baldintzak betetzen dituzten enpresak zehaztuko dira.

Horren ondotik, kontratazio-organoak, azaleko orriaren 34. puntuan ezarritako irizpide objektiboari jarraiki, eskaintza aurkeztera gonbidatuko diren onartutako hautagaiak hautatuko ditu, eta hautatuak, aldi berean eta gutunez edo ofizioz, edo telegramaz, telexez edo telekopiaz, euren proposamenak gonbidapenean bertan adieraziko den epearen barruan aurkeztera gonbidatuko ditu. Proposamenak edo eskaintzak («A» gutun-azala) agiri honen 7.6 puntuan zehazten den dokumentazioa edukiko du. Gonbidapenaren idatzian, proposamen ekonomikoa jendaurrean irekitzeko lekua, data eta ordua, eta HAKLAOaren 92. artikuluan adierazitako gainerako baldintzak adieraziko dira.

Nolanahi ere, kontratazio-organoak ez ditu gonbidatuko agiri honen 8.7 klausulan eta bere azaleko orriaren 34. puntuan aipatzen diren gaitasuneko eta kaudimeneko baldintzak betetzen ez dituzten hautagaiak, edo administrazio-klausula berezien agiri honen azaleko orriaren 34. puntuan zehaztutako hautapen-irizpideren bat betetzen ez dutenak.

#### **7.4.- ALDEZ AURREKO PUBLIZITATERIK GABEKO NEGOZIATUAN ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA**

Aldez aurreko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuan, kontratazio-organoak gonbidatutako enpresek, gonbidapenean ezarritako epearen barruan eta agiri honen azaleko orriaren 32. puntuan adierazitako bulegoetan, proposamen ekonomikoa eta dokumentazio teknikoa buruzko «A» gutun-azala aurkeztu beharko dute; eta azaleko orriaren 33.2 puntuan horrela ezartzen bada, A gutun-azalarekin batera, administrazioari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko dokumentazioari buruzko B gutun-azala aurkeztuko da (7.7 klausula). Azaleko orriaren 35.3 puntuak zenbait balioespen-fase jasotzen baditu, gutun-azalen kopurua handiagoa izango da, agiri honen 7.6.4 klausulak xedatzen duenaren arabera.

Gutun-azal bakoitzak ondoren adieraziko den dokumentazioa edukiko du, eta bertan adieraziko dira zer kontratatuan lehiatzen den, lotea edo loteak, hala badagokio, enpresaren izena, eskaera sinatzen duenaren izen-deiturak eta zer izaerarekin egiten duen, helbidea, telefono-zenbakia, fax-zenbakia eta posta





elektronikoaren helbidea, hori guztia modu irakurgarrian. Gutun-azalek itxita egon beharko dute nahitaez, eta lizitatzen duenak edo ordezkatzeko duen pertsonak sinatuta. Zenbait enpresak aldi baterako enpresa-elkarte gisa lizitatzekotan, horiek guztiek sinatuko dute gutun-azala.

Azaleko orriaren 32.2 puntu horrek gaitasunari eta eskaintzari buruzko gutun-azalak aldi berean aurkeztea aurreikusten ez badu, kontratazio-organoak eskatzen duen unean aurkeztuko da B gutun-azala.

### **7.5.- ALDEZ AURREKO PUBLIZITATEA DUEN NEGOZIATUAN ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA**

Aldez aurreko publizitatea duen prozedura negoziatu batean parte hartzea eskatzera gonbidatuek, gonbidapenean ezarritako epearen barruan eta agiri honen azaleko orriaren 32. puntuan adierazitako bulegoetan, «A» gutun-azala izeneko gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko dute ondorengo 7.6 klausulan adierazten den dokumentazioarekin, gutun-azalean zer kontratutan lehiatzen den, lotea edo loteak, hala badagokio, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-deiturak eta zer izaerarekin egiten duen, helbidea, telefono-zenbakia, fax-zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea adierazita, hori guztia modu irakurgarrian. Gutun-azalak itxita egon beharko du nahitaez, eta lizitatzen duenak edo ordezkatzeko duen pertsonak sinatuta. Zenbait enpresak aldi baterako enpresa-elkarte gisa lizitatzekotan, horiek guztiek sinatuko dute gutun-azala.

### **7.6.- «A» GUTUN AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA EDO ESKAINTZA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA**

Orri bereizian gutun-azalaren edukaren zerrenda bat edukiko du, zenbakiz enuntziatuta; eta gainera, ondorengo dokumentuak:

7.6.1.- Proposamen ekonomikoa.- Enpresak edo bere ordezkariak sinatutako proposamen ekonomiko bakarra aurkeztuko da (proposamena aldi baterako enpresa-elkartean aurkeztuz gero, aldi baterako elkartearen eskaintza aurkeztu duten enpresa guztien ordezkariak sinatu beharko dute). Proposamen ekonomiko hori agiri honetako II. eranskineko ereduaren arabera idatzi beharko da, eskaintzako prezioan kontzeptu guztiak jasota, baita BEZ balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa (eragiketa zergapetu dezakeen beste edozein zerga edo gastu barne), garraio-gastuak eta enpresa kontratistaren mozkin industrialak ere.

Kontratuaren xedea publizitate-lanak egitea baldin bada eta agiritan bestelakorik aurreikusten ez bada, lizitatuzailearen eskaintzaren barruan, egin beharreko lanaren





prezioaz gain, sormen-lana bera, jatorrizkoak sortzea eta ekoiztea, eta publizitate hori zabaltzea eta komunikabideetan ematea ere sartuko dira, eta horiek guztiak sartuta daudela ulertuko da.

Agiriaren azaleko orriaren 1.6 puntuak aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, Administrazioak onartutako oinarrizko proiektuari buruzko proposamen ekonomikoaz gain, gutun-azal horrek eskaintza egiten duenak egiten duen aldaera bakoitzeko proposamen ekonomiko bana eduki ahal izango du. Aldaera bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa, halaber, II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera idatziko da, eta aurreko paragrafoan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak edukiko ditu.

Aleko prezioak eta beste zerrenda batzuk.- Agiri honen azaleko orriaren 14. puntuak ezartzen badu prezioa aleko prezioen sistemaren bidez edo oroharreko prezioaren sistemaz bestelako modu batez zehaztuko dela, II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera idatzitako proposamenarekin batera aurkeztuko da zerbitzua osatzen duten unitate bakoitzaren aleko prezioen zerrenda; edo proposamen ekonomikorako aipatu den ereduaren eranskinean kasu bakoitzean eskatzen den zerrenda.

7.6.2.- Azaleko orriaren 19.1 puntuan eskatzen denean, lizitatuak gehienez % 3koa izan daitekeen behin-behineko bermea aitzinatu beharko du, eta ondoren adierazten den moduan eratu beharko du:

Bermea esku-diruz edo zor publikoaren baloreez eratu ahal izango da.

Behar bezala baimendutako banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kreditu-erakunde finantzario eta elkarren bermerako sozietate batek mailegatutako abal bidez edo Espainian kauzio-arloan jarduteko aseguru-erakunde baimendu batekin egindako kauzio-aseguruaren kontratu bidez ere eratu daiteke bermea.

Dirua, tituluak, egiaztagiriak, abala edo kauzio-aseguruaren kontratuaren poliza Eusko Legebiltzarreko Kontu-hartzailera Nagusian ezarriko dira.

Ez da eskatuko bermea Diruzaintzan uztea hura abal gisa edo kauzio-aseguruaren kontratu bidez eratuta badago; kasu horretan, kontratazio-mahaiaren aurrean eratuko da.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, behin-behineko bermea elkartean parte hartzen duten enpresa batek edo gehiagok eratu ahal izango dute, betiere elkarrekin





agiri honen azaleko orriaren 17.1 puntuan eskatutako zenbatekora iristen bada, eta aldi baterako elkarte osatzen duten enpresa guztiak elkartasunez bermatzen badira.

7.6.3.- Azaleko orriaren 36. puntuak eskatzen badu, hala badagokio, ezarritako esleipen-irizpideak balioesteko dokumentuak sartu beharko dira:

- a) Ezarritako esleitze-irizpideen artean "esleipena egiteko bestelako irizpideetan xedatutako eta sartu gabeko betebeharreri gehitutako zerbitzuekin lotutako beste hobekuntza batzuk" kontzeptua ageri baldin bada, ondokoa hartuko da kontuan:

Aipatutako hobekuntzek ez dute kontratuaren prezioa igoko, III. eranskinaren ereduaren arabera eskainiko dira, eta kontratuaren zati izango dira Administrazioak espresuki onartzen baditu.

Hobekuntza horiek, kontzeptuaren enuntziatuan jasotako ezaugarriekin, libreki eskaini ahal izango dira, azaleko orriaren 36.1 puntuak muga eta baldintza zehatzak ezartzen ez baditu; kasu horretan, horiek errespetatzen ez dituzten hobekuntzak ez dira aintzat hartuko.

Nolanahi ere, eskainitako hobekuntza bakoitza independentetzat hartzen da, eta kontratazio-organoak horietako bat, zenbait edo batere ez sartu ahal izango du kontratuaren barruan.

- b) Agiri honen azaleko orrian ezarritako esleipen-irizpideek hala jasoz gero, laneko plana gaineratu beharko da. Laneko planak eduki hau izango du:

Oinarri teknikoen agirian jasota dauden oinarrizko betebeharr teknikoak betetzen direla azaldu beharko da laneko planean, eta, gutxienez, honako datu hauek zehaztu, jarduera eta denboren diagramak erabiliz:

- Zerbitzua betetzeko egin beharreko lanak eta, hala badagokio, lan horien barruko eragiketarik garrantzitsuenak.
- Lanak egiteko eta zerbitzua betetzeko zein ekipo eta baliabide erabiliko dituen, eta zein izango den aholkulariaren arduraduna edo ordezkoa.
- Lanak egiteko zatikako epeen zenbatespena, egutegiko alditan. Betebeharr teknikoen agirian bestelakorik jartzen ez bada, epe horiek asteka eta hileka zehaztu beharko dira.





- Esleipeneko prezioetan oinarriturik, hilabete bakoitzerako programatutako lanen balioespen bateratua.

Lizitazio fasean dagoen lan-plana aztertzeak eta balioesteak ez du esan nahi Administrazioak laneko plan hori onartuko duenik. Esleipenaren kasuan, azaleko orriaren 22. puntuak eta agiri honen 16.1 klausulak aipatutako lan-programari buruz erabakitakoa hartu beharko da kontuan.

7.6.4.- Azaleko orriaren 35.3 puntuak esleipen-irizpideen zenbait balioespen-fase jasotzen baditu, A gutun-azalean oinarritzko proposamen ekonomikoa baino ez da sartuko, eta hala badagokio, aldaerei dagozkienak. Gainera, ezarri diren balioespen-fase adina gutun-azal aurkeztuko dira (prezioari buruzkoa izan ezik). Horietako bakoitzean balioespen-fase bati dagokion dokumentazioa sartuko da. Gutun-azal bakoitzak dagokion balioespen-fasea identifikatuko du, azaleko orriaren 35.3 puntuan esleitutako balioespen-fasearen zenbakia eta agiri honen 7.4 eta 7.5 klausuletan zehazten diren gainerako datuak aipatuz.

7.6.5.- Azaleko orriaren 1.6 puntuan baimentzen denean, aldaerak aurkeztu nahi dituztenek, proposamen ekonomikoarekin batera, aurkeztutako aldaerei buruzko dokumentuak sartu beharko dituzte gutun-azal horretan.

7.6.6.- Beharrezkotzat joz gero, enpresak, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta egoteagatik, gutun-azal horretan barne hartutako isilpekotzat jotzen dituen eskaintzaren informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VI. eranskinean barne hartutako ereduaren arabera: egindako proposamen ekonomikoak inola ere ez du izaera hori izango.

## **7.7.- «B» GUTUN AZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA, BAI ETA GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKOA ERE**

Aldez aurreko publizitatea duen prozedura negoziatuari buruz agiri honen 7.3 klausularen hirugarren paragrafoan adierazitakoari kalterik egin gabe, prozedura negoziatuen B gutun-azalak ondorengo dokumentuak edukiko ditu, eta horiekin batera, orri berezian, horren edukiaren zerrenda bat erantsiko da, zenbakiz enuntziatuta:

7.7.1.- Proposamena bere izenean edo ahaldun gisa aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiri nazionala.

7.7.2.- Proposamengilea persona juridiko bat denean, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eratzeko eta aldatzeko eskritura, hala badagokio, baldintza hori,





aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriaren arabera, eskatzekoa balitz. Izango ez balitz, bere jarduera arautzen duten arauak jasota dauden eratzeko eta aldatzeko eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza, dagokion erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.

7.7.3.- Bere izenean jarduten ez duenean edo sozietate edo persona juridikoa denean, lehiatzen den sozietatea edo erakundea ordezkatzeko ahalorde askietsia. Ahalorde horrek behar bezala inskribatuta egon beharko du, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan. Haatik, ekitaldi zehatz baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Enpresaburuek, hala badagokio, kontratuaren xedea den jarduera edo zerbitzua gauzatzeko eskatzekoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatu beharko dute.

7.7.4.- Kontratua betetzeko behar adinako baliabide pertsonal eta materialez hornitutako antolamendua daukatela egiaztatu beharko dute hautagaiek behar den bezala.

7.7.5.- Agiri bat, berariaz aipatuz kontratu zehatzaren erreferentzia, SPKLaren 49. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan kontratatzeko ezarritako debekuetako batek ere ez diela eragiten egiaztatzeko. Egiaztagiri hori lekukotza judizial edo administrazio-ziurtagiri bidez egin ahal izango da kasuen arabera, eta agintaritza eskudunak dokumentu hori ezin luzatu duenean, administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandako ardurapeko aitortpen batekin (V. eranskina) ordezkatu ahal izango da.

Erantzukizunpeko adierazpenak espresuki jasoko du indarrean diren xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela. Horri kalterik egin gabe, behin-behineko esleipenaren aurretik, kontratuaren esleipendun izango den enpresari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak HAKLAOaren 15. artikulua aurreikusitako moduan egunean izatearen egiaztagiria eskatuko zaio, eta horretarako 15 egun baliioduneko epea emango zaio.

7.7.6.- Otsailaren 3ko Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean kontratatze gaitasuna egiaztatze prozedura baten bidez inskribatuta dauden enpresek Erregistroko Abokatu arduradunak luzatutako indarreko ziurtagiriaren kopia baino ez dute aurkeztu beharko. Horrela eginda, lizitatuzaileek ez dute zertan aurkeztu eta egiaztatu 7.7.1, 7.7.2, 7.7.3, 7.7.5 eta 7.7.7 puntuetan aipatzen diren dokumentuak eta inguruabarrak (jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja emanda ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena izan ezik), eta, hala badagokio, ezta agiri honen 7.7.8.a) klausulan aipatzen den sailkapena,





betiere kontratisten Erregistroan izena eman izanaren egiaztatzearen sailkapen hori baldin badago eta sailkapena indarrean baldin badago.

Kontratisten Erregistro Ofizialaren egiaztatzearen aurkeztuagatik, 7.4.4, eta 7.4.9 b), c) eta d) klausuletan jasotako dokumentuak ere aurkeztu beharko dituzte, bai eta 7.7.7 klausulak aipatutako jardura ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja emanda ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena ere.

Estatuko Lizitatuak eta Enpresen Erregistro Ofizialeko inskripzioari aurreko paragrafoetan kontuan hartutako baliozkotasun eta eragin berberak emango zaizkio.

7.7.7.- Jardura ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, ekitaldi honetako alta, edo azken ordainagiria, kontratuaren xedea adierazten duen epigrafean, betiere enpresak zerga horrekin zerikusia duten jarduerak egiten baditu, edo aurkezte-datan gauzatzen ari diren jarduerari dagokienez, jardura horiek egiten dituzten lurralde-eremuan gauzatzeko ahalmena ematen diena. Altaz edo azken ordainagiaz gain, aipatutako zergaren matrikulan baja hartu ez izanaren ardurapeko aitortpena aurkeztuko da.

7.7.8.- Kaudimen-baldintzen sailkapenaren egiaztatzearen, edo horrekin aurkeztu behar dena:

a) Agiri honen azaleko orriaren 33.1.1.a) puntuan hala eskatzen bada, behar bezalako sailkapena aurkeztu beharko da, oraindik indarrean dagoena eta puntu horretan zehazten diren multzoko, azpimultzoko edo kategoriako zerbitzuak kontratatze gaitasuna ematen duena; eta Europar Batasunekoak bai baina Espainiakoak ez diren enpresek azaleko orriaren 33.1.1.b) paragrafoan ezarritako baldintzen egiaztatzearen behar dituzte.

b) Sailkapenik eskatzen ez bada, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen teknikoari buruzko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, azaleko orriko 33.1 puntuan xedatzen denaren arabera.

c) Azaleko orriko 33.2 puntuak eskatzen baldin badu bitarteko pertsonal eta materialak atxikitze konpromisoa, enpresak sinaturik aurkeztu beharko du baliabideak atxikitze konpromiso hori, zeinak, gutxienez, aipatutako IV. eranskinean adierazten diren baliabide pertsonal eta materialak jasoko dituen.

d) Agiri honen 9.4 klausulan jasotako esleipen-lehentasunak aplikatzeko eta egiaztatze, ondorengo dokumentazioa ekarri beharko da:





1.- Aipatutako klausulako a) letran adierazitako lehentasunerako, enpresan integratutako langileak egiaztatzen dituen Gizarte Segurantzako TC2 dokumentua, eta enpresak sinatutako aitortpena, 100eko 33ko ezintasuna edo handiagoa duten langileen kopurua eta horien NANaren zenbakiak adierazten dituena.

2.- Bere lanpostuen % 30etik gora SPKLaren seigarren xedapen gehigarrian jasotako kolektiboetako pertsonekin kontratatuzeko konpromiso formala, eta enplegua hazteari eta haren kalitatea hobetzeari begira lan-merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 9ko 12/2001 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriari lotuta egotea egiaztatzen duen dokumentazioa.

3.- c) letran adierazitako lehentasunerako, erakundea bidezko merkataritza gisa aitortuta dagoela egiaztatzen duena.

4.- d) letran adierazitako lehentasunerako, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egotea.

Eta, oro har, gainera, legeria horretan lehentasuna aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

7.7.9.- Beharrezkotzat joz gero, enpresak, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta egoteagatik, gutun-azal horretako isilpekotzat jotzen dituen dokumentazioaren informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VI. eranskinean barne hartutako ereduaren arabera.

7.7.10.- Baldin eta hainbat enpresa aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuta aurkezten badira lizitaziora, enpresa horietako bakoitzak egiaztatu beharko du baduela jarduteko gaitasuna eta baduela kaudimena, aurreko klausuletan ezarritakoari jarraituz; hau da, B gutun-azalari dagokion dokumentazioa kide guztiguztiek aurkeztu beharko dute, honako zehaztasun hauek ere aintzakotzat hartuta:

- a) Zerbitzu-kontratuetan, hala badagokio, azaleko orriaren 33.1 puntuan eskatzen den sailkapen-baldintza betetze aldera, SPKLaren 56. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da; aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzak egiaztatutako sailkapenak gehituko dira, betiere aldi baterako enpresa-elkarteko kide guztiek sailkapena egiaztatu baldin badute obra-kontratista gisa.
- b) Sailkapena nahitaez aurkeztu behar den kasuetan, eta aldi baterako enpresa-elkarte horretan Estatuko enpresak, Europako Batasunaz kanpoko enpresa atzerritarrak eta Batasuneko enpresa atzerritarrak baldin badaude, lehenengo biek beren sailkapena egiaztatu beharko dute, eta gainerakoek, horren





ezean, gaitasun ekonomiko, finantzario eta teknikoak dutela erakutsi beharko dute.

Aldi baterako elkartean lizitatzen dutenek, halaber, proposamen-idatzi bat aurkeztu beharko dute, ondorengoak adierazteko: sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak; horietako bakoitzaren partaidetza eta kontratutik sortzen diren eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen pertsona fisiko ordezkari edo ahalduaren izendapena, zenbateko adierazgarriko kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak izateari kalterik egin gabe; eta esleipendun gertatuz gero, aldi baterako elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa. Dokumentu horrek elkarte osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuta egon beharko du. Kontratua aldi baterako elkarteari esleitzen bazaio baino ez da hori eskritura publiko gisa formalizatu beharko.

## **7.8.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AZALPENAK**

7.8.1.- Eskatutako dokumentazioaren jatorrizkoa edo horren kopia Administrazio kontratatzaileak edo notarioak behar bezala konpultsatuta aurkeztu beharko da, behin-behineko bermea eratzeko egiaztatzen duten dokumentuak izan ezik, horiek jatorrizkoak izan beharko baitute beti.

7.8.2.- Espainiakoak ez baina Europar Batasunekoak diren enpresek nahiz atzerriko gainerako enpresek «B» gutun-azalean aurkeztu beharreko dokumentuei dagokienez, klausula-agiri honetako VII. eranskinean esaten dena bete beharko da.

7.8.3. Esleipenaren aurka errekurtsioak jartzeko epeak horrelakorik jarri gabe amaitzen direnean, proposamenekin batera doan dokumentazioa lizitatu dutenen esku geratuko da.

Haatik, esleipenaren irmotasunetik hiru hilabeteko epea igarota, Administrazioak lizitatu dutenek ekarritako dokumentazioa suntsitzea erabaki ahal izango du, horiek dokumentazioa jasotzen ez dutenean.

7.8.4.- Aurkeztutako dokumentazioak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean (euskaraz edo gaztelaniaz) idatzita beharko du egon. Beste hizkuntza batean idatzita badago, dagokion itzulpen ofizialarekin batera joan beharko du.

## **7.9.- DOKUMENTAZIOA EGIAZTATZEA**





Administrazioak, esleipenaren aurretik zein ondoren eta kontratuan zehar, gutun-azaletan sartutako dokumentazioaren zinezkotasuna egiaztatu ahal izango du, eta enpresak aurkeztutako datu eta inguruabarren faltsutasuna kontratua desegiteko kausa izango da, hala badagokio, enpresa lizitatzailari egoztekoa den ez-betetzeagatik; horrela, eraturako behin-behineko bermea galduko du edo, hala badagokio, eratu ez bada edo agiriaren azaleko orriaren 19.1 puntuan hori eratzea eskatzen ez bada, horren balioaren kalte-ordaina ordainduko du eta, gainera, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen dutenarekiko sortutako kalte-galeren kalte-ordaina emango dio Administrazioari.

### III.- JARDUNAK AZTERTZEA ETA NEGOZIAZIOA

#### 8.- JARDUNAK AZTERTZEA ETA NEGOZIAZIOA

##### 8.1.- JARDUNAK AZTERTZEA ETA ESKAINTZAK IREKITZEA

Aldez aurreko publizitaterik gabeko negoziatuaren prozeduran, azaleko orriaren 32.2 puntuak A gutun-azalarekin «B» gutun-azala aurkeztuko dela ezarri badu, kontratazio-mahai jarduleak «B» gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du lehenik, eta aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko akatsak edo ez-egiteak aurkituko balitu, interesdunei hitzez jakinaraziko lieke hori.

Aldez aurreko publizitatea duen prozedura negoziatuan kasu guztietan, eta eskaintzen irekiera publikoa espresuki aurreikusi den publizitaterik gabeko negoziatuan (ikus azaleko orriaren 2.2 puntua), iragarkian edo, hala badagokio, gonbidapenean adierazitako leku, egun eta orduan «A» gutun-azalak (proposamen ekonomikoak) irekiko dira.

Azaleko orriak esleipen-irizpideen zenbait balioespen-fase aurreikusten dituenean, proposamen ekonomikoak ekitaldi publikoan ireki aurretik, onartutako enpresen eskaintza teknikoaren balioespenen emaitzaren berri emango da.

Administrazioak, eskuragarri dauden baliabideen arabera, prozeduran interesa dutenei bidea emango die jendaurrean irekitzeko egintza horiek eskuratzeko.





## 8.2.- NEGOZIAZIOA

8.2.1.- Aurkeztutako eskaintzak ikusita, kontratazio-organoak negoziata daitezkeen alderdi batzuk hobetu daitezkeela irizten badiu, kontratua sustatzen duen zerbitzuari ahalmena ematea erabaki ahal izango du kontratua gauzatzearren enprekin kontsultei eta negoziazioei ekiteko.

a) Kontratuaren ondorengo alderdiak negoziatu ahal izango dira, azaleko orriaren 37. puntuak negoziatuetik kanpo uzten ez baditu:

- Zerbitzuaren oinarri teknikoen edo garapen-baldintzen agiria.
- Aurrekontua eta aleko prezioak.
- Prezioak berraztertzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoa kontuan izanda.
- Gauzatze-epea.
- Kontratistarentzako ordainketen aldizkakotasuna.
- Berme-epea, hala badagokio Legeak ezarritako mugen barruan.

b) Inola ere ez dira negoziatuko agiri honetan agertzen diren kontratuaren baldintza hauek:

- Kontratua formalizatu aurreko betebeharrak.
- Kontratua formalizatzea.
- Konturako ordainketak.
- Kontratistaren betebeharrak.
- Kontratuaren zuzendaritza.
- Kontratua lagatzea eta azpikontratazioa.
- Kontratua aldatzea.
- Likidazioa.
- Bermea itzultzea.
- Kontratua ez betetzea.
- Epeak ez betetzea.

8.2.2.- Zerbitzu sustatzaileak kontratuaren baldintzak negoziatuko ditu enprekin, kontratua behin betiko gauzatzeko edo ez gauzatzeko askatasun osoarekin.

Negoiazioaren aldebakarreko hausturak ez du kontratuaren aurreko inolako erantzukizunik sortuko, betiere beste aldearen fede onaren aurkako jarrera bat egon ez bada.

## IV.- KONTRATUAREN ENPRESA ESLEIPENDUNA HAUTATZEA





**8.3.-** Gutun-azalak ireki, dokumentazioa aztertu eta, hala badagokio, negoziazio-prozesua egin ondoren, kontratazio-mahaiak, eratu bada, edo horrelakorik ezean prozedura izapidetzen duen zerbitzuak, esleipen-proposamena egingo du esleipen-irizpide objektiboak aplikatuz, horiek azaleko orriaren 34.1 puntuan aurrez finkatu badira; edo, aitzitik, hautapena justifikatzen duten arrazoiak adieraziz.

#### **8.4- ESLEITZEKO LEHENTASUNAK**

Eskaintza onuragarriena zein den finkatu ondoren eta behin-behineko esleipen-proposamena eman aurretik, kontratazio-mahaiak esleitzeko lehentasunak aplikatuko ditu, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

Esleitzeko lehentasunak.- Lizitatuzaileak agiri honen 7.4.7.c klausulan adierazten den dokumentazioa aurkezten badu, eta esleitzeko helburuen ikuspegitik eskaintza onuragarriena berdintzen badira, jarraian adierazten diren enpresen proposamenek lehentasuna izango dute esleipenean:

- a) Kaudimen teknika egiaztatzeko unean bere plantillan ezintasuna duten langileen ehuneko handiena duen enpresa, ehuneko hori bere plantillaren 100eko 2tik beherakoa ez bada.
- b) Gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonak lan-munduratzeko eta sustatzeko lanetan berriaz ari diren enpresak, Lan Merkatuaren Erreformarako Premiazko Neurriei buruzko uztailaren 9ko 12/2007 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian araututa daudenak.
- c) Baldin eta bidezko merkataritzako hautabidea duten produktuak badira kontratuen xede, bidezko merkataritzako erakunde gisa aintzatetsitako erakundeak.
- d) Gizarte- edo laguntza-izaerako zerbitzuei buruzko kontratuetan, irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztutakoak.

Lehentasuna aplikatzerakoan, ezaugarri bat baino gehiago dituen enpresaren proposamenak izango du lehentasuna. Balizko berdinketak ezarritako lehentasun-ordenaren arabera lehentasunezko esleipen-irizpidean puntuazio hoberena duen eskaintzaren alde ebatziko dira; eta, jarraibide hori ez egotekotan, zozketa bidez.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, lizitatuzaile bakoitzak elkartean duen proportzioaren arabera ezarriko dira lehentasunak.

**8.5.-** Azkenik, kontratazio-mahaiak edo kontratazioa sustatzeko zerbitzuak kontratazio-organoari aurkeztuko dizkio proposamen horiek beheranzko ordenan sailkatuta, aktak, ekarritako gainerako dokumentazio teknikoak, esleipen-proposamenarekin eta bidezko deritzon oharrekin batera. Esleipen-proposamenaren aurretik, eskaintzaileei eskaintzen alderdiren bat ulertzeko behar diren argibideak





idatziz ematea eskatu ahal izango zaie. Inola ere ez da onartuko argibideen prozesuan lizitatzailerak eskaintzan adierazitako baldintzak aldatzerik. Hasieran proposatutako irtenbidearen azterketa erraztuko duen informazioa soilik izango da kontuan.

## V.- KONTRATUA ESLEITZEA

### 9.- KONTRATUA BEHIN BEHINEKO ESLEITZEA

**9.1.-** Kontratazio-organismoak kontratuaren behin-behineko esleipena egingo du ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileraren alde.

**9.2.-** Behin-behineko esleipen-ebazpen arrazoitua lizitazioan parte hartu dutenei jakinarazi beharko zaie, eta egunkari ofizial batean edo kontratazio-organoko kontratugilearen profilean argitaratuko da.

**9.3.-** Behin-behineko esleipena ezingo da behin betiko bihurtu hori egunkari ofizial batean edo kontratazio-organoko kontratugilearen profilean argitaratzen denetik hamabost egun baliodun igaro aurretik.

**9.4.-** Hamabost eguneko epe horretan, kontratazio-organismoak eskatuta, behin-behineko enpresa esleipendunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu, bai eta kontratatze gaitasuna baduela edo, SPKLaren 53.2 artikularen arabera, kontratua gauzate aldera konprometitutako edo esleitutako baliabideak kontratatze gaitasuna edo baliabide horiek badituela egiaztatze beste edozein dokumentu ere.

Halaber, eskatzen baldin bada, dagozkion bermea ere eratu beharko du. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea egiaztatze, dagozkion ogasunek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak hartarako egindako ziurtagiri administratiboak aurkeztu beharko dira, edo eskakizun horiek betetzeari buruzko Kontratisten Erregistro Ofizialaren indarreko ziurtagiria, HAKLAOaren 15. artikulua jasotako norainokoan eta eran.

Haatik, enpresa HAKLAOaren 13. artikulua (zerga-betebeharrak) eta 14. artikulua (Gizarte Segurantzako betebeharrak) aipagai dituzten aitorpenak edo dokumentuak aurkeztera behartuta ez dagoenean, erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko da inguruabar hori.

**9.5.-** Horretarako beharrezko baldintzak ez betetzeagatik behin-behineko esleipendun gertatu den enpresari kontratua behin betiko esleitzea bidezkoa ez denean, beste deialdi bati ekin aurretik, Administrazioak enpresa horren ondoren





dauden enpresari edo enpresei behin-behineko esleipena egin diezaieke, hori egitea litekeena balitz eta esleipendun berriak bere adostasuna adieraziko balu; kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko.

**9.6.-** Kontratazio-mahaiak oinarri sendoz uste duenean proposamena ezingo dela bete, bertan balio anormalak edo neurritz gainekoak sartu direlako, behin-behineko esleipena ez da egingo.

Kasu horietan, hori aurkeztu duen enpresari entzunaldia eman beharko zaio, eskaintzaren balioespena justifika dezan eta horren baldintzak zehatz ditzan. Prozeduran, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Kontratazio-organoak eskaintza ezin beteko dela irizten badio, Administrazioa gogobetetzeko moduan bete ahal izango dela uste den, eta ezohikotzat edo neurritz kanpokotzat hartzen ez den hurrengo proposamen ekonomiko onuragarrienaren aldeko behin-behineko esleipena adostuko da.

**9.7.-** Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan, behin-behineko esleipena egin gabe geratu ahal izango da, eta behin betiko esleipena baino ez da izango, agiri honen 9.3 klausulan aurreikusitako epeari atxiki gabea, nahiz eta enpresa hautatuak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izana egiaztatu beharko duen eta, hala badagokio, bidezkoa den bermea ere eratu beharko duen.





## 10.- KONTRATUA BEHIN BETIKO ESLEITZEA

Kontratuaren behin-behineko esleipena behin betiko bihurtu beharko da, 10.3 klausulan adierazitako epea bukatzen den biharamunetik hasita hurrengo hamar egun balioduneko epean. Hartarako, beharrezkoa izango da proposatutako enpresak aipatutako dokumentazioa aurkeztu izana eta behin betiko bermea eratu izana, halakorik eskatzerik baldin badago. Nolanahi ere, behin-behineko esleipena berrikusi ahal izango da errekurtsio berezi bidez, SPKLaren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 11.- ESLEIPENAK JAKINARAZTEA ETA JENDAURREAN JARTZEA

**11.1.-** Esleipenak jakinaraztea eta jendaurrean jartzea.- Kontratuaren esleipena adostu ondoren, lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

**11.2-** Jakinarazpen elektronikoa erabiltzeko, beharrezkoa izango da komunikabide hori lehentasunezkoztat berariaz adierazi edo onartu izatea, horretarako emango den helbide elektronikoa bat identifikatuta edo onartuta.

Jakinarazpen elektronikoa egin dela edo ukatu egin dela ulertuko da, interesdunak onarpena edo ukoa elektronikoki sinatzen duen unean; horrez gain, jakinarazpena ukatu egin dela ulertuko da helbide elektronikoa jakinarazpena jaso dela egiaztatu eta hamar egun naturaletan jakinarazpenaren edukia zabaltzen ez bada, non eta ofizios edo hartzailearen eskariz frogatzen bada jakinarazpena zabaltzea ezinezkoa dela, arrazoi tekniko edo materialak tarteko. Ondorio horietarako, datu-basean jasota geratuko da zein egun eta orduan jarri den jakinarazpena interesdunaren eskura bere helbide elektronikoa, bai eta, hala badagokio, interesdunak edukia zein egun eta orduan ikusi duen ere.

**11.3-** Halaber, SPKLaren 138. artikuluan jasota dagoen publizitatea emango zaie esleipenei.

Kontratazio-organoak isilpeko izaera duen kontratuaren esleipenari buruzko informazio jakin bat ez jakinarazteko eta ez argitaratzeko ahalmena izango du.

## VI.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

### 12.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK





Behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso ondoren, enpresa esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu kontratua formalizatzeko dagoen 10 egun balioduneko epearen barruan:

**12.1.-** Aldizkari Ofizialetako iragarkien zenbatekoa ordaindu izana egiaztatzea, aintzat hartuta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian kontratuen iragarkiak behin bakarrik argitaratzea kontratuaren esleipendun gertatu denaren kontura izango dela.

**12.2.-** Zereginak aldi baterako enpresa-elkarte bati esleituko balitzaizkio, horrek elkartearen eraketa eskritura publikoan egiaztatu beharko luke, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, eta baita aldi baterako elkarteari esleitutako identifikazio fiskaleko kodea ere.





### **13.- KONTRATUA FORMALIZATZEA**

**13.1.-** Kontratua formalizatzeko dokumentua hogeita hamar egun balioduneko epearen barruan emango da, esleipenaren jakinarazpena jasotzearen biharamunetik hasita; administrazio-dokumentuaren izaera edukiko du, eta HAKLAOaren 71. artikuluan aurreikusi diren aipamenak bete beharko ditu.

**13.2.-** Enpresa kontratugileari egoztekoak diren kausengatik kontratua adierazitako epearen barruan ezin formalizatuko balitz, Administrazioak hori desegitea adostu ahal izango du, aurrez nahitaezko entzunaldia izapidetuta.

Kasu horretan, behin-behineko bermea konfiskatu eta sortutako kalte-galeren kalte-ordaina emango da.

### **VII.- KONTRATUA GAUZATZEA**

#### **14.- GAUZATZEAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKARITZA**

**14.1.-** Hitzartutako zerbitzua behar bezala betetzen ote den begiratzeko, koordinatzeko eta zaintzeko ardura zuzena du kontratuko zuzendariak, eta titulu egokia eta behar bestekoa izan behar du.

Bere lana egiteko, hainbat laguntzaile eduki ahal izango ditu agindupean. Horiek beren titulu profesionalen arabera edo ezagupen berezien arabera egingo dute lana, eta azterlaneko zuzendaritza osatuko dute.

**14.2.-** Kontratazio-organoak izendatutako zuzendaritzaren berri emango dio enpresa kontratistari Administrazioak, kontratua egin eta hurrengo 15 egun naturalen barruan, eta zuzendaritza horrek, era berean, epe hori bera izango du laguntzaileen berri emateko. Aldaketak izanez gero kontratistari idatziz jakinarazi beharko zaio.

**14.3.-** Kontratuaren Zuzendaritza hor badago ere, kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du. Bere eginkizunak izango dira kontratuaren gauzatzea ikuskatzea, eta itundutako zerbitzua zuzen burutu dadin bermatzeko beharrezko diren erabakiak hartzea eta aginduak ematea, hori guztia ematen zaizkion ahalmenen barruan.

### **15.- LANAK HASTEA**





Lanak hasteko egun ofiziala kontratua formalizatu ondokoa izango da. Espedientea presazkoa deklaritzen bada, Administrazioak lanen hasiera agintzen duenetik aurrera –idatziz agindu beharko du– hasiko da gauzatzeko epea, eta Administrazioak ez badu halako agindurik ematen, esleipenaren eta enpresak behin betiko bermea ezarri izanaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera.

## **16.- KONTRATATUTAKO LANARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

### **16.1.- Lanen programa**

Agiri honen azaleko orriaren 22. puntuan eskatuz gero, lanen egitaraua aurkeztu beharko da.

### **16.2.- Kontratuko dokumentu eta argibide, baliabide material eta giza baliabideei buruz ezarritakoa betetzea**

Kontratua gauzatzeko orduan, zehatz-mehatz bete beharko dira betebeharrak teknikoak agiria, lanen programa, klausula-agiri honetan zehaztutakoa eta baita, betebeharrak horiek denak ondo bete edo uler daitezzen, Administrazioaren ordezkariak enpresa kontratistari idatziz ematen dizkioten jarraibideak.

**16.2.1.-** Enpresak beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko guztiak jarri beharko ditu, zerbitzua behar bezala eta kontratuan hitzartutako epeen barruan emateko.

Administrazioak baztertu ahal izango du bitarteko bat, desegokia dela uste badu. Hala ere, ebazpen Administrazioaren aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango du enpresak; hamar egun natural izango ditu horretarako, Zuzendaritzak erabaki hura jakinarazteko idazkia igortzen dionetik hasita.

**16.2.2.-** Bere betebeharrak erantzuteko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu enpresa esleipendunak. Langile horiek enpresa kontratistaren eta ez besteren mendekoak izango dira, eta esleipendunak nagusiari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu haiekiko, eta lan arloan eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu bere ardurapean dituen langileei dagokienez.

**16.2.3.-** Enpresa esleipendunak jakitera emango ditu enpresari atxikita daudenen artean izendatu asmo dituen pertsonen izenak, eta pertsona horiek bete egin beharko dituzte Administrazioak haiek onesteko jartzen dituen baldintzak. Esleipendunak eskaintzan izen eta abizenez zehaztutako fakultatiboak izendatu





beharko ditu klausula-agiri honetan adierazitako lanak egiteko, eta haien dedikazioa ere eskaintzan zehaztutakoa izango da. Hortaz, kontratua indarrean dagoen bitartean, lanaldi osoa dutenek ezingo dute beste inon lanik egin. Era berean, kontratuko Zuzendaritzak berariaz baimena eman ezean, eskaintzan zehaztutako fakultatiboak ezingo ditu ordezkatu esleipendunak.

### **16.3.- Lanen jabetza**

Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, Administrazioaren jabetzakoak izango dira, eta beraz, hark edozein unetan eskatu ahal izango du zerbitzuen zati bat eskura dakion, baldin eta hori behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

Era berean, enpresa aholkulariak zerbitzua aldeztatik jasotzea eskatu ahal izango du, eta jasotze hori onartzeko ahalmena Administrazioaren esku geratuko da.

### **16.4.- Isilpekotasuna**

Kontratu hau ondo betetzeko egiten diren lan guztiak isilpean gorde beharko dira, eta aholkulariak ezingo du beretzat erabili kontratatutako lanen daturik edo informaziorik, ez eta beste batzuei eman ere, non eta horretarako Administrazioak idatziz emandako baimena ez duen. Hortaz, bere esku dagoen guztia egin beharko du egindako lanetik ateratako informazioa eta emaitzak isilpean gordetzeko.

### **16.5.- Industria-jabetza eta jabetza intelektual**

Agirietan aurkakoa aurreikusten ez bada, industria-jabetza eta jabetza intelektualeko eskubideak sortu edo eragin ditzaketen lanetan, enpresa esleipendunak proposatutako ideien originaltasunaren gaineko erantzukizun osoa izango du edozein hirugarrenen aurrean. Era berean, berratu eta bere gain hartuko ditu industria-jabetza edo jabetza intelektualari lotuta dauden erabilitako elementu guztien erabilgarritasunaren kostuak.

Kontratu honen bidez Administrazioak eskuratu egiten ditu sortutako lanari buruzko industria-jabetza eta jabetza intelektualeko eskubide guztiak, aplikazio industrial edo ustiapen ekonomikorako erabili daitezkeenak. Eskubide horiek Euskadiren ondarearentzat eskuratutzat hartzen dira egungo legerian jasotako eperik zabalenerako jabari publikora bildu arte.

Eskubide horiek erregimen eksklusiboan eskuratuko dira, gaur egun arte existitzen den edozein ustiapen-modalitate eta/edo euskarraren gainean, eta salbuespenik gabe munduko herrialde guztietara zabaltzen den lurralde-eremuaz. Horrenbestez,





erreserbatu egiten da jatorrizko ekoizpen-formatua eta hori hedatu, erakutsi edo zabaldu edo ustiatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein modu. Administrazioari, zehazki, honako jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna dagokio: ekoizpen, zabalkuntza, komunikazio publiko, sortutako lanaren aldaketa eta ekonomikoki ustia daitezkeen gainerako eskubide guztiena.

Enpresa kontratistak edo lana egiten parte hartu duten pertsonak ezin izango dute lana beraiantzat erabili, eta ezta kontratatutako lanaren zatirik edo horren filmazio, testu, irudi edo argazkirik hirugarrengeoi eman; eta ezin izango dute lanaren edukia osorik edo zatika argitaratu administrazio titularraren idatzizko baimen zehatzik gabe. Dena dela, enpresa kontratista izango da betebeharrak hori ez betetzeagatik sor daitezkeen kalte eta galeren erantzulea. Kontratuaren xede diren lanak egiteagatik sortutako material guztiak Administrazioaren jabetzakoak izango dira ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak industria-jabetza eta jabetza intelektualeko eskubide guztiak eskuratze aldera eskatutako dokumentu guztiak sinatzeko konpromisoa hartzen du enpresa esleipendunak.

#### **16.6.- Itundutakoa ez ezagutzea**

Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak –kontratuaren zati dira–, edo Administrazioak onartutako jarraibide, klausula-agiri edo era guztietako arauak ezagutu gabe ere, enpresak horiek guztiak betetzeko betebeharra izaten jarraituko du, ez da horregatik obligazio horretatik aske geldituko.

**16.7.-** Lana **gauzatzeko epeak** betetzeari dagokionez, SPKLaren 196. artikuluan, eta HAKLAOaren 98. eta 99. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da.

#### **17.- ENPRESA KONTRATISTARI EGIN BEHARREKO ORDAINKETAK**

**17.1.-** Enpresa kontratistak eskubidea du benetan egin dituen lanak ordaindu dakizkion, hitzartutako prezioetan, eta kontratuari, onartutako aldaketei eta Administrazioak idatziz emandako aginduei jarraituz.

**17.2.-** Lanak balioesteko, berriz, Herri Administrazioen Kontratuaren Legeko Erregelamendu Orokorreko 199. eta 200. artikuluetan xedaturikoa eta administrazio-klausula berezi hauen azaleko orriko 14. puntuan prezioa zehazteko sistemari buruz dioena bete beharko da.

**17.3.-** Azaleko orriko 16. puntuan hala jartzen bada, esleipendun suertatu denak eskubidea edukiko du kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20ra arte aurretiaz jasotzeko, prestaketa-lanak ordaintzeko, puntu horretan bertan jasota dauden irizpide- eta balioespen-moduen arabera. Dena dela, berme bat jarri beharko da ordainketa horren aseguru gisa.





**17.4.-** Administrazioa behartuta egongo da prezioa ordaintzera kontratua osorik edo zati batean gauzatu izanaren ziurtagiriak luzatu eta hurrengo hirurogei eguneko epearen barruan, eta, berandutuz gero, kontratistari ordaindu beharko dizkio, hirurogei eguneko aipatutako epea betetzen denetik hasita, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak, betiere, merkataritzako eragiketetan ordaintzerakoan atzerapenik egon ez dadin, berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen legean jasotakoaren arabera.

## **18.- ENPRESA KONTRATISTAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK**

### **18.1.- Lanaren arlokoak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunekoak**

Enpresa kontratistak lanaren arloko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurtasun eta osasuneko indarreko xedapenak bete behar ditu, eta batez ere:

**18.1.1.** Garatu beharreko zerbitzuak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektiboari lotuta daudenean enpresak dagokion lan-ordenantza eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

**18.1.2.** Enpresak nahitaez betetzekoak diren laneko segurtasun eta higieneko neurriak hartu beharko ditu, edo langileen biziari, gorputz-osotasunari eta osasunari kalte eragin diezaieketen arriskuak eragozteko beharrezkoak direnak. Era berean, laneko arriskuen prebentziorako indarrean dagoen araudiak ezarritako betebeharrak beteko ditu eta kontratatutako jardunari ekin aurretik ondorengo betebeharrak betetzen dituela egiaztatu beharko du:

- Kontratatutako jardunaren arriskuei buruzko ebaluazioa eta dagokion prebentzio-lanaren plangintza.
- Kontratua gauzatzeko erabiliko dituen langileei prebentzioaren arloan emango dien prestakuntza eta informazioa. Horretarako, enpresa esleipendunak, besteak beste, Lan, Justizia eta Gizarte Segurantzza Sailak abian jarritako ikasgela iraunkorra erabili ahal izango du.
- Banakako segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren tresnak eman izanaren ziurtagiria.

**18.1.3.** Enpresak zerbitzuaren atalen bat azpikontratatzan baldin badu, eskatu egin beharko die azpikontratei aldeztu aurretik aipatutako betebeharrei dagozkien ziurtagiriak, eta agiri horiek administrazio kontratatzaileari eman.





**18.1.4.** Langileei lanean dabiltzala edozein eratako istripu edo kaltea gertatuz gero, indarrean dauden arauak xedatutakoa betetzeko erantzukizuna edukiko du. Administrazioak, aldiz, ez du horretaz erantzun beharrik edukiko.

## **18.2.- Aginduen liburua**

Esleipendunak betebeharra du aginduen liburua zaindu eta Zuzendaritzaren eskura edukitzeko, Administrazioak egoki irizten dionerako. Liburu hori Administrazioak berak bideratuta egongo da, eta, hala behar denean, egokiak iruditzen zaizkion agindu, jarraibide eta komunikazioak idatziko ditu Administrazioak bertan, eta bere sinadura ipiniko haien ondoan. Era berean, jarraibide horiek jaso izanaren agiria sinatuko du, bere kabuz edo bere ordezkariaren bitartez.

Aginduen liburua lana hasteko egunean irekiko da, eta klausula-agiri honen azaleko orriko 29.2 puntuan ezarritako berme-aldia amaitutakoan itxiko.





### **18.3.- Lanen eta kalteen ondoriozko erantzukizuna**

Egindako lanen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna edukiko du; eta, orobat, kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo desegokiek eta ateratzen dituen ondorio okerrek Administrazioarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketen ondorioena ere, SPKLaren 198. artikuluan jartzen den moduan.

Beste batzuei eragindako kalteak ordaindu beharko ditu, SPKLaren 198. artikulua xedatzen duenaren arabera.

### **18.4.- Gauzatzeko beharrezko gastuak**

Baimenak, agiriak edo erakunde ofizialen edo banakoen informazioak eskuratzeko egin behar diren gastuak ordainduko ditu. Baita zerga, eskubide, tasa, konpentsazio edo indarrean diren xedapenen aplikazioak dakartzan gastu eta kargak ere, xedapen horiek berek zehaztutako moduan eta zenbatekoan.

### **18.5.- Gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak lortzea**

Hitzartutakoa betetzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzeko dagokio, hala ofizialak nola banakoenak.

### **18.6.- Administrazio kontratugilearekiko lankidetzatza**

Kontratuaren xedea behar bezala betetzeko behar diren zerbitzu profesionalak eskuratu beharko dizkio Administrazioari, horrek beharrezko irizten dizkienak eta batere kosturik gehitu gabe, hala nola, argibideak emateko bileretara joatea, jendaurreko informazioa ematea eta abar.

### **18.7.- Epeak ez betetzea**

Kontratua gauzatzeko epea eta kontratu honetan zehazturiko zatikako epeak bete egin beharko ditu. Epe osoa edo zatikako epeak amaitu eta enpresa kontratista, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, berandu iritsi bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua desegitea edo zigor ekonomikoak jartzea. Zigor ekonomikoaren zenbatekoa SPKLaren 196. artikulua leheneko paragrafoan zehaztutakoa izango da edo, hala badagokio, azaleko orriaren 25. puntuan adierazitako zigorrak ezarriko dira.





### **18.8.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak**

Kontratutik sortutako Legebiltzarreko Administrazioarekiko harremanetan, enpresa kontratistaren errealitate soziolinguistikoak horretarako aukera ematen badu, euskara erabiliko da kontratua gauzatzeko eraginetarako. Horretarako:

- a) Enpresa kontratistak euskararen nahikoa gaitasun duten langileak atxikiko dizkio kontratuaren gauzateari, Legebiltzarreko Administrazioarekiko harremana hizkuntza horretan egin ahal izan dadin. Ondorioz, kontratuaren gauzateari atxikitako langileen eta Legebiltzarreko Administrazioaren arteko ahozko komunikazioak euskaraz egingo dira batik bat.
- b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, igorleak eta hartzaileak euskaraz egitea hautatzen ez badute.

### **18.9.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, sozialak edo ingurumenekoak**

Azaleko orriko 31. puntuan hala aurreikusi bada, kontratista esleipendunak gizarte- edo ingurumen-baldintza bereziak aplikatuko ditu kontratua gauzatzean, hala nola, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatu, lan-merkatuan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatu, langabeziari aurre egin, lanpostuan prestakuntza bultzatu, edo azaleko orriko puntu horretan zehaztutako gainerako gizarte- edo ingurumen-baldintzak.

### **18.10.- Datu pertsonalen tratamendua**

**18.10.1.-** Kontratistak datu pertsonalen tratamendua eskatzen duten zerbitzuak egin behar baldin baditu, klausula honetan zehaztutakoa kontuan hartu beharko da.

**18.10.2.-** Datu pertsonalaren tratamendutzat automatizatutako edo automatizatu gabeko ondoko eragiketa eta prozedura teknikoak hartuko dira: identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei buruzko informazio- datuak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratakoak, biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezereztea eta lagatzea ahalbidetzen dutenak.

**18.10.3.-** Kontratistak tratamenduaren arduradunak emandako argibideen arabera bakarrik erabiliko ditu datuak.





**18.10.4.-** Kontratuaren xederako bakarrik erabiliko dira tratatutako datu pertsonalak, eta ezin izango dira aipatutakoaz bestelako helburuetarako erabili.

**18.10.5.-** Ez zaizkie hirugarrenei emango kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonalak. Horretarako, kontratistak konpromisoa hartzen du datuak edo datu horiekin osatutako fitxategiak hirugarrenei ez agerrarazi, transferitu, laga edo jakinarazteko, ahoz zein idatziz, baliabide elektroniko, paper edo sarbide informatikoaren bidez, ezta ikus ditzaten ere.

**18.10.6.-** Esleipendunak eta kontratuaren xedearen zerbitzuan parte hartzen duten langile guztiek nahitaez bete behar dute Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan aipatutako sekretu-betebeharra. Betebehar horrek iraungo du kontratua, bete delako edo deuseztatua izan delako, balio gabe geratzen denean ere.

**18.10.7.-** Esleipendunak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eskatutako neurri tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartzeko konpromisoa hartzen du; neurri horiek beharrezkoak dira kontratu honen xede diren lanak egiteko datu pertsonalen tratamenduaren segurtasuna bermatzeko.

- a) Horretarako, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari zerrenda bat eman beharko dio lanak hasi aurretik datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien ondorengo datuekin: izen-abizenak, funtzioak eta non egingo duten lan. Kontratuaren gauzatzean beharrezkoa izango balitz langileren bat sartzea edo baja ematea, enpresa esleipendunak beste zerrenda bat emango du hori gertatzen denetik astebeteko epean. Enpresa esleipendunak eta zerrenda horietan agertzen diren pertsonak tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordetzeko idatzizko konpromiso formala hartu beharko dute.
- b) Esleipendunak klausula administratibo berezien azaleko orriaren 28. puntuan zehazten diren tratamendu-zentro, lokal, ekipamendu, sistema eta programei buruzko segurtasun-neurriak ezarri behar ditu.
- c) Kontratuaren xedearen zerbitzua amaituta, esleipendunak datu pertsonalak dituzten euskarri guztiak itzuli edo fitxategiak suntsitu edo ezabatu beharko ditu. Berreskuratzeko prozesurik aplikatzea ezinezkoa egiteko moduan egingo da suntsitze-lana. Fitxategiak itzuli edo suntsitu izana ziurtatzeko akta bat sinatuko dute esleipendunaren ordezkioak eta lanen zuzendariak, non gorabehera horiek agertuko diren.

**18.10.8.-** Kontratua indarrean dagoen bitartean Administrazioak eskubidea izango du kontrolak egiteko ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak hartzeko.





## 19.- LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINDAKOAK

**19.1.-** Agiri honen azaleko orriaren 29.2 puntuan ezarritako berme-epaia igaro arte, kontratatutako lanak ondo eginda egoteaz erantzungo du enpresa kontratistak, bai eta lan horiek izan dezaketan akatsez ere, nahiz eta Administrazioaren ordezkariak lan horiek ikuskatuak edo egiaztatuak izan, egiten ari ziren bitartean, edo onartuak, egiaztapen, balioztapen edo zati baten ziurtapenetan, horrek ez baitu aske utziko erantzukizun horretatik, ez eta eskubiderik emango.

**19.2.-** Lan akastuna edo gaizki egindakoa Administrazioak berak emandako agindu baten ondorio zuzena bada, ez du erantzukizunik izango.

**19.3.-** Administrazioak uste badu ez direla kontratuko baldintza teknikoak bete, HAKLAOaren 203. artikuluan xedaturikoa bete beharko da, eta hitzartutako lan hori ez baldin badago onartzeko moduan, araudi horretako 204. artikuluan eta agiri honetako 24. klausulan xedaturikoa bete beharko da.

**19.4.-** Zerbitzu-kontratua obra-proiektu bat oso-osorik lantzea baldin bada, orduan bereziki, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

**19.4.1.-** Orokorrean, enpresa kontratistak erantzungo du obrak egiterakoan edo ustiatzerakoan, proiektuaren akats edo hutsegite teknikoengatik edo kontratistari berari egotz dakizkiokeen errekontza materialengatik, ez-egiteengatik edo lege- edo araudi-xedapenak hausteagatik, Administrazioari edo beste norbaiti eragiten dioten kalte eta galerez. SPKLaren 288. artikuluan 2. puntuan zehazten da horregatik ordaindu beharko duen kalte-ordaina.

**19.4.2.-** Egotz dakizkiokeen akats, gabezia tekniko, errekontza material, ez-egite edo lege- edo araudi-xedapenen urratzeak zuzendu eta konpontzeari dagokionez, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 286. artikulua ezarritakoa aplikatuko da.

**19.4.3.-** Baldin eta, aholkulari-kontratistari egotz dakizkiokeen errekontza edo ez-egiteengatik, obraren benetako kostuak proiektuan aurreikusitako obra-aurrekontuarekin 100eko 20 baino alde handiagoa ematen badu –dela goitik, dela behetik–, SPKLaren 287. artikuluan 2. paragrafoan zehazten diren kalte-ordainak ordaindu beharko ditu; aldez aurretik, dagokion espedientea egingo du Administrazioak, interesatuari esateko duena entzuteko aukera emateko.

## 20.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA





**20.1.-** Aholkularitza eta laguntzako kontratuak laga egin ahal izango dira, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 205. artikuluan zehaztutako baldintzak beteta.

**20.2.-** Klausula-agiriaren azaleko orriaren 21. puntuan azpikontratazioa galarazten ez bada, eta zenbait kontraturen berriazko eskakizunak ere bete beharra kendu gabe, enpresa kontratistak, oro har, egiaztatu egin beharko ditu honako zehaztasun hauek:

- a) Kontratuaren zatikako gauzatzea eta azpikontratatzeko diren kontratuaren zatiak zein azpikontratatistarekin itunduko dituen, SPKLaren 210. artikuluan 2.a) atalean eta agiriaren azaleko orrian xedatutakoari jarraiki.
- b) Prezioari dagokionez, prezio hitzartua enpresa azpikontratazista edo hornitzailearekin SPKLaren 211. artikuluan zehazten diren epe eta baldintzekin hitzartu beharra betetzea.
- c) Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 210. artikuluko 5. atalean ezarritako baldintza betetzea. Baldintza horren arabera, ezin izango da azpikontrataziorik egin ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeke gaitasunik gabe utzitako pertsonekin edo lege horretako 49. artikuluko kasuetan daudenekin.

**20.3.-** Kasu horiek egiaztatzeke, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

**20.3.1.-** Azpikontratazioa formalizatu aurreko komunikazio idatzia, honako hauek jaso beharko dituen: zein azpikontratatistarekin hitzartuko duen kontratuaren zati baten edo batzuen gauzatzea, eta kontratuaren zein zati azpikontratatu den.

**20.3.2.-** Komunikazio horri alde biek sinatutako dokumentu baten zirriborroa erantsiko zaio, agiri hori enpresa azpikontratazista eta hornitzaile bakoitzak sina dezan. Agirian, SPKLaren 211. artikulua xedatzen duenari jarraituz hitzartu beharko dituzte alde biek ordainketa-epeak eta -baldintzak.

**20.3.3.-** 20.3.1 klausulan aipatutako komunikazioari, halaber, ondorengo egiaztagiria erantsiko zaizkio:

- a) Agiri bat, SPKLaren 49. artikuluan kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batek ere ez diela eragiten egiaztatzeke. Egiaztapen hori lekukotza judizialaren bidez edo administrazio-ziurtagiriaren bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Eta agintaritza eskudunak ezin badu agiria eman, horren orde erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da (V. eranskina), administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandakoa. Horrelakoetan, azpikontratazista pertsona juridikoa bada, adierazpena sinatzen duenak ahalmen-agiria





aurkeztu beharko du, enpresa Administrazioaren aurrean ordezkatzeko gaitasuna baduela egiaztatzen duena; eta pertsona fisikoa bada, nortasun-agiri nazionala.

b) Indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, HAKLAOaren 15. artikuluan ezartzen den moduan egiaztatu ahal izango da betebeharrak bete izana. Horretarako, egiaztagiri administratiboak aurkeztu beharko dira. Egiaztagiriok, kasuan kasuko ogasunek eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek eman beharko dituzte. Aldiz, jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, alta-agiria eta, beharrezkoa bada, azkenengo ordainagiria aurkeztu beharko dira.

c) Kontratatzeko ahalmena egiaztatzeko prozedura baten bidez Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden azpikontratistei dagokienez, erregistroko legelari arduradunak emandako egiaztagiri baliodunaren kopia baino ez dute aurkeztu beharko (Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenak ezartzeari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen du delako erregistro hori). Horrela, ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko aurreko 1) eta 2) puntuetan adierazitako dokumentu eta inguruabarrak.

**20.4.-** Azpikontratazioa formalizatu baino hamabost egun natural lehenago gutxienez, enpresa kontratistak 20.3 klausulan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu kontratazio-organoaren aurrean. Azpikontratazioa formalizatu ondoren, 20.3.2 klausulan aipatutako dokumentua –alde biena eta jatorrizkoa– aurkeztu beharko du enpresa kontratistak kontratazio-organoaren aurrean, behar bezala izenpetuta. Enpresa esleipendunak betebeharrak hori betetzen ez badu, edo ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira, ezin izango da azpikontratazioa egin.

## **21.- KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA**

**21.1.-** Arlo honetan, SPKL Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 202. eta 203. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta horietan ezarritakoaren kontra egiten ez duenean, HAKLAO Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 102., 103., 141. eta 162. artikuluetan ezarritakoari.

**21.2.-** Kontratuaren xedea ezertan aldatu behar bada, kontratuaren Zuzendaritzak proposamena idatzi beharko du, eta, proposamen horretan, aldaketa hori arrazoitzeko, azaltzeko eta balioesteko dokumentuak jaso beharko dira. Administrazioak aldaketa horiek onartzeko, lehenago, enpresa kontratistari entzun eta dena delako gastua ikuskatu egin beharko du.





**21.3.-** Aldaketak beste lan batzuk badakartza eta lan horiek ez badira kontratuan jasotako sistemaren bidez baloratu, HAKLAOaren 202. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

**21.4.-** Administrazioak dena delako aldaketa hori idatziz jasotzea erabakitzen badu, eta horrek berekin badakar lanen zati batzuk egiten jarraitzeko ezintasuna, kontratu hori aldi baterako, zatiren batean edo osorik etetea erabaki beharko da, beharren arabera.

Kontratuaren gauzate-aldia edo iraupena, berriz, kasu berezietan izan ezik, ezingo da, proportzioan, kontratu horretako aurrekontua egiten dena baino gehiago luzatu edo laburtu. Kasu berezi horiek behar bezala arrazoitu beharko dira, eta halakoetan bai, enpresa kontratistak eskaturik eta Zuzendaritzak aurretiaz txostena eginik, epea gehiago aldatu ahal izango da.

**21.5.-** Ez kontratistak, ez eta Zuzendaritzak ere ezingo dute behar bezala onarturik ez dagoen inolako aldaketarik sartu edo gauzatu. Lanak zuzendu, ikuskatu eta zaintzeko ardura duten funtzionarioek dagokien erantzukizuna eduki badezakete ere, kontratuaren xedea Administrazioaren behar bezalako baimenik gabe ezertan aldatuz gero, enpresa aholkulariak erantzun beharko du, eta aldaketa horien eraginpean dauden lanak berriro egin beharko ditu nahitaez.

**21.6.-** Kontratuan aldaketak egiteko, SPKLaren 140. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

**21.7.-** Kontratua desegiteko arrazoi izango dira honako kasu hauek: kontratuan aldaketak egitea, eta horiek, elkarren segidakoak izan arren, bakarka edo multzoka hartuta, kontratuko hasierako prezioan –balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe– 100eko 20ko gorabeherak eragitea bai gorantz bai beherantz, edo aldaketa horiek kontratuaren beraren funtsa aldaraztea.

**21.8.-** Kontratua eteteari dagokionez, berriz, HAKLAOaren 103.1 artikuluko etete-aktan honako gauza hauek ere zehaztu beharko dira: etetea aldi baterakoa, zati baterakoa edo osoa ote den, edo behin betikoa ote den; hitzartutako lanaren justu zein zati eten den; eta etetea gertatzen den momentuan hitzartutako lana zertan den hobeto ulertzeko bidea emango duen gorabehera oro. Etendako zatia edo zatiak zerrenda batean jaso eta aktari gehitu beharko zaio.





## VIII.- KONTRATUA AMAITZEA

### 22.- LANAK AMAITZEA ETA LAN HORIEK JASOTZEA

**22.1.-** Kontratua enpresak betetzat joko da enpresa horrek, kontratuaren baldintzen arabera eta Administrazioa gogobeteta, kontratuaren xedea osorik betetzen duenean.

Kontratua bete dela agerian gera dadin, Administrazioak egintza formal eta positibo bat egin beharko du jasotzea edo adostasuna adierazteko. Hilabeteko epea izango du horretarako, kontratuaren gaia entregatzen edo burutzen denetik hasita, edo, bestela, klausula-agiri honen azaleko orriko 29. puntuan zehazten den epea.

**22.2.-** Enpresa kontratistak ezarritako epean eman beharko ditu egindako lanak, eta hala dagokionean, kontratazio-organoaren ordezkariak aurkeztutako dokumentuak aztertuko ditu eta, baldintza teknikoak betetzen dituztela uste badu, jasotze-egintza gauzatzea proposatuko du.

Kontratuan ezarritako baldintza teknikoak betetzen ez direla uste badu, enpresa kontratistari idatziz adieraziko dizkio hautemandako hutsuneak eta akatsak konpontzeko jarraibide zehatzak, bai eta noizko behar duen lan horrek eginda egon. Beste oharrak baldin badu, idazki horretan bertan egingo du.

Enpresa kontratistak, kontratazio-organoaren ordezkariaren oharrak irakurrita, erreklamaziorik egiten baldin badu, ordezkari horrek txostenari erantsita kontratua egin zuen kontratazio-organoari bidaliko dio, erreklamazioa ebatz dezan.

Kontratazio-organoaren ordezkariaren oharrak direla-eta enpresa kontratistak ez baldin badu idatziz ezer erreklamatzeko, ados dagoela ulertuko da, eta hautemandako akats horiek zuzentzeko edo konpontzeko betebeharra daukala.

**22.3.-** Akatsak konpontzeko adierazitako izapideak beteta, kontratuaren xede den zerbitzuak bete beharreko baldintzak betetzen dituela uste bada, jasotze-egintza gauzatuko da eta dagokion akta egingo.

**22.4.-** Enpresa kontratistaren zerbitzuak ez baditu betetzen jaso izateko beharrezkoak diren baldintzak, idatziz adieraziko zaizkio hautemandako akatsak konpontzeko beharrezko jarraibideak, bai eta bere betebeharrak ezartzen zaion epean betetzeko beharrezko jarraibideak ere. Zerbitzua ez da jasoko jarraibide horiek betetzen ez diren artean, eta orduan egingo da dagokion akta.

**22.5.-** Akatsak konpontzeko emandako epea amaituta enpresa kontratistak oraindik konpondu ez baditu, desegin egin ahal izango da kontratua. Halakoetan, behin





betiko bermea galdu egingo du, eta berme hori ez bada kalteak ordaintzeko nahikoa, enpresa kontratistak bermeaz gorako aldearen kalte-ordaina eman beharko dio Administrazioari.

Nolanahi ere, egindako lanak, enpresa kontratistari egotzi dakizkiokeen akats edo hutsengatik, ez baldin bazaizkio egokitzen kontratuko zerbitzuari, lanak atzera botatzea eta ez jasotzea erabaki ahal izango du Administrazioak kontratazio-organoaren bidez. Honenbestez, ez du izango ordaintzeko betebeharririk, eta, ezer ordaindurik badu, atzera berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

**22.6.-** Kontratu honen berme-epa klausula-agiri honen azaleko orriko 29.2 puntuan ezarritakoa da, betiere, jasotze- edo adostasun-egintzaren datatik zenbatzen hasita. Administrazioak eragozpenik jarri gabe igarotzen bada epe hori, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean zein beste arau batzuetan beste eperen bat ezartzen den kasuetan izan ezik, enpresa kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

**22.7.-** Egindako lanetan akatsik edo hutsik aurkitzen bada berme-epean, enpresa kontratistari erreklamazioa egiteko eskubidea edukiko du kontratazio-organoak, aurkitutako akats edo hutsak zuzen ditzan.

Berme-epa amaituta Administrazioak ez badu eragozpenik adierazi edo salaketarik egin, emandako zerbitzuaren erantzukizunik ez du izango jada enpresa kontratistak. Nolanahi ere, bete beharrekoa izango da Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 286., 287. eta 288. artikuluetan xedatutakoa.

**22.8.-** Enpresa kontratistak eskubidea izango du berak emandako zerbitzuari buruz egiten dituen oharra ezagutzeko eta ohar horiei buruz bere iritzia jakinarazi ahal izateko.

**22.9.-** Hitzartutakoa jasotzeko egintzaren agiria egiten denetik hasi eta hilabeteko epearen barruan, kontratuaren likidazioa egin eta kontratistari jakinarazi beharko zaio eta, hala badagokio, likidazio horren emaitza ordaindu egin beharko zaio. Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, enpresa kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, betiere, merkataritzako eragiketetan ordaintzerakoan atzerapenik egon ez dadin, berankotasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen legean jasotakoaren arabera.

## **23.- BERMEA ITZULTZEA**

**23.1.-** Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, baldin eta bermearen gainean ezarri beharreko erantzukizunik ez badago, bermea itzultzeko edo abala ezeztatzeko





erabakia hartuko da, klausula-agiri honen azaleko 29.2 puntuan jasotako bermealdia igarota.

**23.2.-** Kontratua amaitzen denetik urtebete igaro eta artean ez badira jasotze-egintza ez eta likidazioa ere egin, eta horren arrazoiak ezin bazaizkio enpresa kontratistari egotzi, orduan, gehiago luzatu gabe, bermea itzuli edo ezeztatu egingo da; baina, horretarako, beharrezkoa izango da Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 88. artikulua aitpatzen duen erantzukizun-kasurik ez gertatzea.

## **24.- GAUZATZEAREN ATZERAPENA**

Arlo honetan, HAKL Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 95. eta 96. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta horietan ezarritakoaren aurka egiten ez duenean, HAKLAOaren 98., 99. eta 100. artikuluetan ezarritakoari; bai eta klausula-agiri honen azaleko orriko 25. puntuan ezarritakoari ere.

## **25.- KONTRATUA DESEGITEA**

**25.1.-** SPKL Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 206. artikuluan aurreikusitako arrazoiez gain, honako hauek ere kontratua desegiteko arrazoiak izango dira:

- a) Kontratuaren hasiera, hasteko ezarrita zeukan egunetik hasita, sei hilabete baino gehiagoan etenda izatea, eta arrazoia Administrazioari egotzi ahal izatea.
- b) Kontratuan atzera egitea edo, Administrazioak hala erabakita, kontratua urtebete baino gehiagoan etenda egotea.
- c) SPKLaren 279.2 artikuluan adierazitako kontratu osagarrien kasuan, kontratu nagusia desegitea.
- d) Kontratuan aldaketak egitea eta horiek, elkarren segidakoak izan arren, bakarka edo multzoka hartuta, kontratuaren prezio zaharrean gorantz edo beherantz 100eko 20ko gorabeherak eragitea, balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe; edo kontratuaren beraren funtsa aldaraztea.
- e) Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 286. artikuluan aurreikusitako kasua.





**25.2.-** Kontratua desegiteko arrazoiak izan daitezke honako hauek ere:

- a) Enpresa kontratistak ez betetzea klausula-agiri honetan edo kontratuko gainerako agirietan zehaztuta dauden nahitaezko betebeharrak.
- b) Datu pertsonalak kontratuaren xedea ez den beste helburu baterako erabiltzea; klausula-agiri honetako edo klausula teknikoan agiriko xedapenen aurka datu horiek komunikatu edo erabiltzea aholkulariaren erruz kontratuaren ez-betetze gisa ulertuko da ondorio guztietarako.

## **IX.- ERREKURTSOAK. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

### **26.- ERREKURTSOAK. KONTRATAZIOAREN ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA**

**26.1.-** Arautze harmonizatuaren menpe dauden kontratuetan, errekurtsu berezia ezarri ahal izango zaie behin-behineko esleipen-erabakiei, lizitazioa erregulatzeko klausula-agiriei, zerbitzuaren ezaugarriak finkatzen dituzten egintzei eta aurreko prozeduran erabakitako izapide-egintzei. Azkenengo horiei errekurtsu berezia ezartzeko, ordea, esleipenari buruz ebatzi beharko dute zuzen edo zeharka, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabaki beharko dute edo eskubideei edo bidezko intereseei defentsa-gabezia edo kalte konponezina eragin beharko diete.

**26.2.-** Eraikuntzaren arloko errekurtsu berezia, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 37. artikuluan arautua, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri baino lehen aurkeztu beharko da. Bere eremuan, ordea, ezingo da administrazio-errekurtsu arruntik jarri.

### **27.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

**27.1.-** Kontratazio-organoak administrazio-kontratua interpretatzeko, horren betearazpenak sortzen dituen zalantzak argitzeko, herri-intereseko arrazoiengatik aldatzeko, desegiteko eta horren eraginak zehazteko eskumena izango du, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean ezarritako baldintzen eta eraginaren mugen barruan eta horiei lotuta.

**27.2.-** Horretarako erabakiak hartu baino lehen, entzun egin beharko zaio enpresa kontratistari eta txostena egin beharko du dagokion zerbitzu juridikoak. Erabakiok berehala eta nahitaez betetzekoak izango dira eta administrazio-bidea amaituko dute, indarrean dauden legerian ezarritako eskakizunak beteta.





**27.3.-** Administrazio-bidea amaitzen duten erabaki guztien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legearen arabera. Eta, aukeran, azaroaren 26ko Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeari jarraituz, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia eman duen organoan bertan.





## AGIRIAREN I. ERANSKINA

### PARTE HARTZEKO ESKAERAREN EREDUA

*(Azaleko orriaren 4. puntuak prozedurak aldez aurreko publizitatea duela adierazten badu baino ez da aurkeztu behar)*

..... jaunak/andreak, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, eta ..... NAN duenak,  
bere izenean / ..... enpresa ordezkatzuz, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, ..... PK .....  
tel. eta ..... IFK dituenak

#### ADIERAZTEN DUT:

- I. .... xedea duen kontratuaren esleipenerako iragarkiaren jakinaren gainean nagoela.
- II. Agindu teknikoen agiria, administrazio-klausula berezien agiria eta kontratu hau zuzentzen duen gainerako dokumentazioa ere ezagutzen ditudala, eta osotasunean, inolako salbuespenik gabe neure egiten ditudala eta men egiten diedala.
- III. Ordezkatzen dudak enpresak indarrean dagoen legedian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela zabaldu, instalatu eta jardunean jartzeari dagokienez.
- IV. Erreferentziako kontratuari dagokionez, eskaintza egiteko onar dezatela eskatzen duela, eta eragin horretarako administrazio-klausula berezien agiriaren 7.7 klausulan eta horren azaleko orriaren 34.4 puntuan eskatzen den dokumentazioa erantsi dudala.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Izpta.:

NAN:





## AGIRIAREN II. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

*Ba al dago eredu honi erantsita bete eta sinatu behar den eranskinik (bai/ez)? .....*

..... jaunak/andreak, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, eta ..... NAN duenak,  
bere izenean / ..... enpresa ordezkatuz, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, ..... PK .....  
tel. eta ..... IFK dituenak

#### ADIERAZTEN DUT:

I.-

.....  
..... xedea duen kontratuaren esleipenerako iragarkiaren jakinaren gainean nagoela.

II.- Agindu teknikoen agiria, administrazio-klausula berezien agiria eta kontratu hau zuzentzen duen gainerako dokumentazioa ere ezagutzen ditudala, eta osotasunean, inolako salbuespenik gabe neure egiten ditudala eta men egiten diedala.

III.- Ordezkatzen dudak enpresak indarrean dagoen legedian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela zabaldu, instalatu eta jardunean jartzeari dagokienez.

IV.- Eskaintza honen zerbitzuari dagokionez, ..... zenbakiko (*zehaztu dagokiona*) oinarritzko irtenbidearen / aldaeraren arabera egitea proposatzen dudala, guztira (\*) ..... euroko zenbatekoaz (\*\*) (*letraz adierazi behar da*), eskainitako prezioan kontzeptu guztiak barne daudelarik, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta eragiketa karga dezakeen beste edozein zerga edo gastu, joan-etorrien gastuak eta kontratistaren industria-mozkina barne, eta ..... epean (*epea esleitzeko irizpidea denean soilik*).

Eskainitako guztizko zenbatekoan jasanarazi behar den BEZari dagokion (\*\*\*) ..... euroko zenbatekoa barne hartuta dago.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Izpta.:

NAN:





*(\*) Kontratuaren xedea jarraikako zerbitzuak eta aleko prezioan denean, ez da atal hau bete behar, baina proposamen ekonomikoaren dokumentu hau eta eredu honi erantsitako eranskina, bai.*

*(\*\*) Loteen kasuan, zehaztu zeinetara lizitatzen den, eta adierazi horietako bakoitzaren truke eskainitako guztizko zenbatekoa, zenbateko horretan barne hartutako BEZari dagokion zenbatekoa adierazita.*

*(\*\*\*) Salbuespen objektiboaren kasuan, hori egiaztatzen duen dokumentazioa adierazi eta erantsi beharko da.*





ORRIAREN III. ERANSKINA

**BESTE HOBEKUNTZA BATZUK, ESKAINITAKO PREZIOA GEHITU GABE, EGITEKO PROPOSAMENA. ZERBITZU HORIEK KONTRATUAN ADIERAZITAKO BETEBEHARREI GEHITUKO ZAIZKIE ETA EZ DAUDE SARTUTA ESLEIPENERAKO BESTE IRIZPIDE BATZUETAN**

..... jaunak/andreak, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, eta ..... NAN duenak,  
bere izenean / ..... enpresa ordezkatzuz, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, ..... PK .....  
tel. eta ..... IFK dituenak

Azaleko orriaren 36.1 puntuan eta agiri honetako 7.6.3 klausulan ezarritakoaren arabera, beste hobekuntza batzuetarako proposamen batzuk egiten ditut, eskainitako prezioa gehitu gabe, zenbaki honetako oinarritzko konponbide edo aldaerari dagokionez (zehaztu beharrekoa zehaztu): ..... Kontratuan adierazitako betebeharrei gehitzeko zerbitzuak izango dira eta ez daude sartuta esleipenerako beste irizpide batzuetan.

*Eskainitako hobekuntzetako bakoitza apartekotzat jotzen da; beraz, kontratazio-organoak aukeran izango du kontratuaren barruan hobekuntzetako bat, batzuk edota bat ere ez sartzea.*

HOBEKUNTZAren zenbakia: ...	
Hobekuntzaren azalpena:	
<i>(Hala badagokio, eragindako unitateak edo kapituluak)</i>	Eragindako neurketa <i>(hala badagokio)</i>

HOBEKUNTZAren zenbakia: ...	
Hobekuntzaren azalpena:	
<i>(Hala badagokio, eragindako unitateak edo kapituluak)</i>	Eragindako neurketa <i>(hala badagokio)</i>

HOBEKUNTZAren zenbakia: ...	





.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Izpta.:

NAN:





#### ORRIAREN IV. ERANSKINA

### BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

Lizitatuak bere organizazio produktiboa kontratatutako jardunean erabiltzeko konpromisoa hartzen du eta, gainera,

Kaudimen teknikoaren egiaztapena osatze aldera, enpresa lizitatuak, gauzatzeko bitarteko material eta pertsonalei dagokienez, honako bitarteko hauek atxikitze konpromisoa hartu beharko du: *(baliabide zehatzak ezarri, baldin eta kontratazio-organoak uste badu gutxieneko bat ezarri behar zaiela bitarteko pertsonal edo materialen ezaugarri edo kualifikazioei)*

I.- Bitarteko materialak:

II.- Bitarteko pertsonalak:

### BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

..... jaunak/andreak, helbidea  
.....(e)n, ..... kaleran, eta ..... NAN duenak,  
bere izenean / ..... enpresa ordezkatzuz, helbidea  
.....(e)n, ..... kaleran, ..... PK .....  
tel. eta ..... IFK dituenak

#### HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Kontratuaren gauzatzearan honako bitarteko hauek atxikitze konpromisoa hartzen duela: bere ekoizpen-organizazioa, dokumentazio teknikoaren gutun-azalean egiaztatutako bitartekoak, eta gainera, finkatuta baldin badaude, agiriaren eranskin honetan eskatzen diren gutxieneko bitarteko pertsonal eta materialak.

Eta hala jasota gera dadin, sinatu egiten dut adierazpen hau, .....(e)n,  
.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n





Sinadura





ORRIAREN V. ERANSKINA

## KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ EDUKITZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, eta ..... NAN duenak,  
bere izenean / ..... enpresa ordezkatzuz, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, ..... PK .....  
tel. eta ..... IFK dituen

(\*) ..... zenbakidun espedienteari dagokionez

ADIERAZTEN DU:

Ez bera, ez berak ordezkutzen dudana, ez enpresa horren administratzaile edo legezko ordezkarietako bat ere, ez daudela sartuta administrazio publikoekin kontratatzeari dagokionez Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan jasotako debeku-kasuetako batean ere.

Halaber, aipatutako enpresa hori egunean dagoela indarreko legeriak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruz agindutakoari dagokionez, eta konpromisoa hartzen duela ezen behin-behineko esleipendun izaten bada, esleipen hori argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean egiaztatuko duela eskakizun hori.

Eta hala jasota gera dadin, sinatu egiten dut adierazpen hau, .....(e)n,  
.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura

*(\*) Adierazi espediente-zenbakia, administrazio-klausula berezien agiriaren azaleko orriko 3. puntuan jasota dagoena.*





*ORRIAREN VI. ERANSKINA*

**ENPRESAK ESKAINITAKO INFORMAZIO BATZUEI IZAERA KONFIDENTZIALA EMATEKO EREDUA**

..... jaunak/andreak, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, eta ..... NAN duenak,  
bere izenean / ..... enpresa ordezkatzuz, helbidea  
.....(e)n, ..... kalean, ..... PK .....  
tel. eta ..... IFK dituenak

**ADIERAZTEN DUT:**

Kontratazio-espeditentearen zenbakia (\*): ..... Gutun-azala (*adierazi zein gutun-azal den*): ..... Gutun-azal honetan aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jotzen dira eskaintzari buruzko honako informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta daudelako:

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Izpta.:

NAN:

*(\*) Adierazi espediente-zenbakia, administrazio-klausula berezien agiriaren azaleko orriko 3. puntuan jasota dagoena.*





## ORRIAREN VII. ERANSKINA

### ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute «B» gutun-azalean:

1.- Enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharra daukate. Horretarako, erregistro profesional batean izena eman beharko dute, edo, bestela, HAKLAOaren I. eranskinean zehaztuta datozen egiaztatgiriak aurkeztu.

2.- Lizitatzailleak bere izenean jarduten ez duenean edo pertsona juridikoa denean, ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du. Ahalorde hori, gainera, ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko da.

3.- Kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien eskumenaren menpe jartzeko adierazpena. Adierazpen horren barruan sartuko da, hala badagokio, lizitatzailleari egokitu dakioken atzerriko eskumen-auzitegiari uko egitea ere.

4.- Egiaztapena, SPKLaren 49. artikuluan adierazitako gorabeheretako batean ere ez egotearena.

Egiaztatgiri hori lekukotza judizial edo administrazio-ziurtagiri bidez egin ahal izango da kasuen arabera, eta agintaritza eskudunak dokumentu hori ezin luzatu duenean, administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandako ardurapeko aitorten batekin (V. eranskina) ordezkatu ahal izango da. Kasuan kasuko estatuaren legeriak aukera ematen badu, agintari judizialaren aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpenak ere balio izango du beste horien ordeiz.

5.- Europako Erkidegoko kasuan kasuko estatuko agintaritza eskudunak egindako egiaztatgiri, dena delako enpresak, aginte esleitzaillearen estatuko legezko xedapenen arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean dituela egiaztatzeko. Agiri hori ere ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko du.

6.- Sailkapena eskatzen bada, Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresentzat nahikoa izango da kontratazio-organoaren aurrean gaitasun ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, klausula- agiri honen azaleko orriko 33.1.2 puntuan eskatutakoaren arabera eta SPKLaren 64. eta 67. artikuluei jarraituz.





Europako Erkidegoko estatuek euren enpresen alde egindako sailkapen-egiaztagiriek edo antzeko dokumentuek enpresa horien ustezko ahalmena adieraziko dute kontratazio-organoen aurrean, SPKLaren 64.1 artikuluko b) eta c) letretan, 65. artikuluko a) letran, eta 49. artikuluko a), b) eta d) letretan ezarritakoari dagokionez.

7.- Lizitatzailleak, hala dagokionean, agiri honen azaleko orriko 13.1 puntuan eskatzen den behin-behineko bermea eman beharko du, kontratuaren aurrekontuari dagokion 100eko 2ko zenbatekoaz, eta berme hori agiri honen 8.6.2 klausularekin lotuta 12.1 klausulan adierazten den moduan eratuko du.

8.- Europako Erkidegokoak ez diren estatuetakoen enpresa atzerritarrek, aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzez gain, ondoko hauek ere egiaztatu beharko dituzte:

a) Jarduteko ahalmena egiaztatzea, enpresak egoitza duen lekuan Espainiak daukan diplomaziako ordezkariak finkoak edo kontsuletzeko bulegoak emandako txosten bidez. Txosten horrek honako hau adierazi beharko du, aurretiaz enpresak egiaztatutik: enpresa horrek izena emanda duela hango lanbide edo merkataritzako erregistroan edo antzekoan, eta halakorik ezean, kontratuaren gaiaren eremuko jardueretan aritzen dela. Alabaina, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresak baldin badira, jarduteko ahalmena eranskin honetako 1. puntuan aurreikusitakoari jarraituz egiaztatu beharko dute.

b) Enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, edo estatu horrek sinatua duela Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio publikoari buruzko Akordioa. Azken hori egiaztatzeko, Espainiak kasuan kasuko estatuan duen ordezkariak diplomatikoaren txostena beharko da.

c) Dokumentu bidez, Espainian helbidea duen sukurtsala irekita duela eta beharrezko eragiketarako ahalduak edo ordezkariak nominalki izendatu dituela.

d) Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela, bai eta aurreko paragrafoan aipatzen diren ahalduen ahalordetzeak ere inskribatuta dituela.

e) Baldin eta kontratuaren zenbatekoa –balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita– Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 16. artikuluan ageri den zenbatekoaren berdina edo handiagoa bada, Munduko Merkataritza Antolakundearen kontratazio publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresei ez zaie eskatuko b) atalean aipatzen den elkarrekotasun-txostena.





